

ELKARRIZKETA: IRENE LOPEZ-GOÑI • ESPERIENTZIA: ARANTZAKO
ATERPEA • GALDEIDAZUE: LUIX MARI ZULAIKA • TROKA ABENTURA •
ATZEKO ATETIK: DORA SALAZAR

hh
hik hasi


128

4 EURO • 2008KO MAIATZA EUSKAL HEZIKETARAKO ALDIZKARIA



Gizarte hezitzaileak eskolan

Guztion artean premia bereziei aurre eginez



Unibertsoaren misterioak eta gure planetaren jaiotza eta eboluzioa, irudi ikusgarriekin hornitua.



GOZATU LURRA ETA NATURA DESKUBRITZEN



Ibaiari bizia dario; ibaia eta bere ingurua animalien eta landareen bizileku.



aurkibidea



8
gaia

GIZARTE HEZITZAILEAK ESKOLAN

Hezkuntzak dituen premia berriei erantzuteko, era berriak erabili behar ditugu. Gizarte hezitzaileak eta euren lana hezkuntza ez formalak hartzen dituen zenbait esparrutan erakatu ditugu orain arte, baina hori aldatzen ari da eta eskolan eraberritu eta leku handiagoa hartzen ari dira. Beharrezkoa da hezitzaileen lana eta gizarte hezitzaileen lana koordinatzea.



16
elkarrizketa

IRENE LOPEZ-GOÑI

Irene Lopez-Goñi, Nafarroako Ikastolen Elkarteko Pedagogia Eraberriduna eta NUPeko irakaslea da. Gaitasunei buruz eta Nafarroako ikastolen egoerari eta proiektuei buruz hitz egin du Ireneekin.

5 editoriala

6 kronika

8 gaia

GIZARTE HEZITZAILEAK ESKOLAN
GUZTION ARTEAN PREMIA BEREZIEI AURRE EGINEZ

16 elkarrizketa

IRENE LOPEZ-GOÑI

24 esperientzia

Arantzako aterpea

26 ekarpena
SESZ ikastetxea

30 ekarpena
Nancy Chacón Arteaga

32 galdeidazue
Zer ondorio izango ditu haurren gorputz hezkuntzako orduen murrizketak?
Luix Mari Zulaika

35 berriak

40 nora joango gara?
Troka abentura
Natura eta abentura edonoren esku

42 Atzeko atetik
Dora Salazar

Argitaratzailea: **XANGORIN** Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 371 408 ; www.hikhasi.com; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.com; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690 Erredakzio burua: Olatz Lasagabaster. Erredakzioa: Joxe Mari Auzmendi, Miren Guilló eta Ainhoa Azpiroz. Erredakzio batzordea: Mikel Estonba, Mari Karmen Irastorza, Kristina Mardaraz, Josi Oiarbide, Fito Rodriguez, Maite Saenz, Xabier Sarasua eta Arantxa Urbe. Aholkulariak: Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Felix Basurko, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines Dufau, Luis Mari Elizalde, Lore Erriondo, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Xabier Isasi, Irene Lopez-Goñi, Izaskun Madariaga, Karmele Perez Urraza, Kepa Perez Urraza, Amaia Vazquez, Lontxo Oihartzabal, Matilde Sainz eta Pruden Sudupe. Administrazioa: Arantxa Goiburu. Diseinua: TRAM•Grafik. Maketazioa: Xangorin. Inprimategia: ANtza S.A.L. Azaleko irudia: Ikasgela (Argazki Press). Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak onetsia (2008-IV-21). Kopurua: 3.500 ale.

hik hasiko artikuluez edonon eta edonoiz balia zaitzake. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. hik hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.

EUSKAL ESKOLA PUBLIKO BERRIAREN XIII. JAIA

TAKONERA MAIATZAREN 18



ETORKIZUNA
EUSKERAZ BLA



ULTZA ELIZKOLA UZKUNTZA GARDEN IKARATIA

editoriala maiatza

Finantzaketa inguruko enegarren itzulia aurrerabiderik ez duen gatazkan



EHko Oinarrizko Akordioan euskal herritarron hezkuntza eskubideak zerrendatuta daude. Herri moduan aurrera egingo badugu ordua da hezkuntzan ere, bakoitza bere lubakitik irten eta herri eta etorkizun ikuspegiz proposamen berriak eta ausartak egiteko!

Hautsak harrotu ditu Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza sare kontzertatuak sare publikoarekiko finantzaketa berdinketa lortzeko egin duen eskariak.

Ez dira berriak ez gaia, ez jarrerak eta ezta erantzunak ere, denbora batez lozorroan egon direla zirudien arren. Baina aldian-aldian gaia agertzen denean sortzen dituen erreakzioak ikusirik, arazo zahar baten ajeak direla esatea ez litzateke gehiegi esatea.

Bada bideratu gabeko gatazka bat gure herrian publiko-privatu gaiaren inguruan dabilena, eta arazoari oinarrian heltzen ez zaion bitartean egun arte ikusi eta bizi izan ditugun gatazketan murgildurik jarraituzera kondenaturik gaude. Ondorioz, elkarri hortzak erakusten jarraituko dugu, sustraietara jo ezean, ideia eta bide berriak saiatzeko borondatea agertu ezean.

Publiko-privatu dikotomia zaharkitua eta hitz horien definizioa errealtateari egokitu ezinean ditugu. Hez-

kuntzarako, benetan kalitatezkoa izan dadin, behar duen adina bitarteko eta diru zuzentzeko eskatu beharrean, "horri ez eman gehiago" politika aplikatu nahian, ezinaren kudeaketa eutsiz besterik ez gara ariko.

Zerk egiten du publiko ikastetxe bat, bere titulartasunak? Zer definitzen du, bada, haren jardunak eta emaitzak?

Pribatuen sareek behar-bereziak dituzten ikasleen beharrei dagokien proportzioan erantzuteko konpromisoa hartu nahi dute; lan bertsua egiten duten langileen lan baldintzak berdintzerajo nahi dute, eta abar. Ez ote diegu hezkuntza esparruan ditugun erronkei hobeto erantzungo denon artean, elkarrekin? Zertan ari ote gara?

Bada ordua, behingoz, sekula inora eramán ez gaituzten termino antzuak baztertu eta berrietan saiatzeko. Borondate oneko inork uste al dezake duela 150 urte estatuek sortutako sistema zentralizatu haiek balio dezaketetik egungo jendarteari erantzuteko?

Ildo horretan, ekarpen interesgarria eta ausarta egin zuen Euskal Hezkuntzarako Oinarrizko Akordioak: "Denona denari esaten zaio PUBLIKOA: guztientzat irekia denari, denon ongiari begiratzen dionari eta guztientzat aukera berdintasuna garatzen duenari. HEZKUNTZA PUBLIKOA, beraz, herrien eta herritar guztien garapenerako beharrak asetzen dituen hezkuntza izango da, aukera berdintasunean eskubide guztiak ziurtatuko dituen kalitatezko zerbitzua.

Gure kasuan, arestian aipatutako euskal herritarron eskubideak gauzatzeko dituen izango da EUSKAL HEZKUNTZA PUBLIKOA".

Oinarrizko Akordioan euskal herritarron hezkuntza eskubide horiek zerrendatuta daude, gainera.

Herri moduan aurrera egingo badugu ordua da hezkuntzan ere, bakoitza bere lubakitik irten eta herri eta etorkizun ikuspegiz proposamen berriak eta ausartak egiteko!

kronika

Herriz herri, egunez egun, urratsez urrats... Hezkuntza Sistema Nazionala. Euskal Herriak Bere Eskola herri ekimenak apirilean abian jarri zuen kanpaina azken txanpan sartu da. Hezkuntza sistema nazionalaren aldeko aldarrikapena egitea da kanpainaren helburua, eta bide horretan emandako aurrerapausoak eta aurkitutako oztopoak gizarteratzea. Horretarako, hainbat herri eta ikastetxetan ekimenak antolatu dituzte, eta ikastetxeentzat eta aisialdiko taldeentzat unitate didaktikoa osatu dute. Era berean, erakusketa dinamikoa ikusteko eta argazki bidezko atxikimendua egiteko aukera izango da maiatzaren 31ra bitartean. Orduan amaituko da EHBEk abiatutako kanpaina Iruñean izango den manifestazio nazionalarekin batera.



Itunpeko sarea osatzen duten ikastetxeek sare publikoaren pareko finantzaketa eskatu dute

Hezkuntza Sistemaren Legea lehenbailehen lantzen hasteko eskatu dio Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako ikastolen kidegoak Eusko Jaurlaritzari eta lege horren barnean, finantzaketa arloan ikastolak eta sare publikoa pareka ditzatela eskatu dute, itunpeko ikastolen finantzaketa % 100ekoa izatea, alegia. Eskaera horrekin bat egin dute Kristau Eskolek ere. Jose Luis Sukia, Partaideko zuzendariak esan duenez, sare publikoko ikastetxeek eskaintzen duten zerbitzu bera eskaintzen dute ikastolek, eta beharrezkoa da finantzaketa ere, parekoa izatea. Hezkuntza sistema berdefinituko lukeen legearen alde egin du Partaidek, egungo sistemaren eredua gainditzeko. Ikastolak jabe-

go anitzeko ereduaren alde agertu dira eta hezkuntza, zerbitzu publiko bakar gisa hartzea proposatu dute. Gainera, indar guztiak herri baliabideekin hornitutako ikastetxeak bultzatzeko jarri beharko lirатеkeela uste dute ikastolek.

Gaur egun itunpeko ikastetxeen % 70 inguru finantzatzen ditu Eusko Jaurlaritzak eta finantzaketa osoa izango balitz, itunpeko ikastetxe guztiak finantzatzeko 120 milioi euro beharko lituzkete ikastoletako ordezkariak jakinarazi dutenez. Horren trukean ikastolak prest egongo lirатеke gizarte konpromisoak hartzeko. Partaide prest agertu da ikastoletan matrikulatzen diren ikasleen % 15 etorkinak izateko eta konpromiso horien artean leudeke baita ere, ezintasunak dituzten haurrak hartzea edota hizkuntzarekin zerikusia duten konpromisoak.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak proposamenaren berri jaso du, baina ez dute negoziatzen hasteko datarik jarri. Dena den, aurreratu dute, pausoren bat eman aurretik finantzaketa publikoa jasotzeko itunpeko ikastetxeek bete behar lituzketen baldintzak zehaztu beharko lirатеkeela. Edonola ere, legearen proiektua hasierako fasean dago eta denbora pasako da erabakiren bat hartu aurretik.

Euskal Curriculumak ez du aintzat hartu behar ez Estatu espainiarrak ezta Frantziakoak ere finkatzen dituzten curriculumak. Euskaldunok nahi dugun curriculumak behar du izan.

Edurne Larrañaga



Berria

Datorren ikasturtean ez da irakasle gehiago izango sare elebidunean Iparraldean

Paueko Akademia Ikuskaritzak ez du irakasle gehiago jarriko datorren ikasturtean Lapurdiko, Nafarroa Behereko eta Zuberoako ikastetxe elebidunetan. Urruña salbuespena izango da, baina gainontzean, euskarazko eskaintzarik ez dagoen herrietan, egoera berari eutsiko diote eta izan diren zenbait mugimenduk, batzuei mesede egin arren, besteei kalte egingo die. Esaterako, Akademiak lanpostu-erdi bana eman dizkie Ziburuko eta Donibane Garaziko eskolei baina lanpostu osoa kendu dio Izpurakoari.

Pirinio Atlantikoetako departamentuan, 51 irakasle kenduko dituzte guztira, eta eragin handiena Euskal Herrian izango du neurriak, 30 lanpostu

kenduko baitituzte, eta 16 sortu. 14 lanpostu horietatik, gehienak sare frantses elebarkarean kenduko dituzte. Akademia Ikuskaritzak ama eskoletan gela bat sortzeko ikasleen gutxieneko kopurua igo egin du; 20 ziren lehen, orain, berriz, 25.

Lanpostu murrizketaren harira izan diren protesten aurrean, gogor hitz egin du Philippe Carriere Paueko Akademia ikuskariak. Esan duenez, eskola karta berrestean, iraila bitartean ez da inolako aldaketarik izango eta alferrik izango dira eskola okupazioak, bere ustetan, hezkuntzaren kalitateari kalte besterik ez diotelako egiten. Sindikatuek, gurasoen elkarteek eta hautetsiek haserre hartu dute erabakia, izan ere, sindikatuek aurreikusten dute datorren ikasturtean eskoletan 300 haur gehiago izango direla. Seaska ere haserre dago, 13,5 lanpostu gehiago eskatzen dituztelako eta bakarrik emateko asmoa iragarri dutelako Frantziako agintariek. Jean Claude Iriart, EPP Euskararen Erakunde Publikoko zuzendariak, eskola kartaren balorazio positiboa egin du hiru urtetan aurrerapena izan dela eta haur gehiagok euskaraz ikasten dutela esanaz baina ez da iritzi berekoa, ordea, Thierry Delobel Ikas-Biko presidentea, bere ustez eskola kartak hizkuntza politikaren mugak agerian utzi baititu.

Hizkuntza gutxituen inguruan eztabaidatuko dute Frantziako parlamentuan maiatzaren 7an. Frantziako diputatuek hizkuntza gutxituen gaineko eztabaida egingo dute, hizkuntza gutxituen euroagiria berresteari begira. François Fillon Frantziako lehen ministroak hizkuntza gutxituen aldeko neurriak onartzea baztertu zuen, baina horri buruzko eztabaida antolatuko zuela hitz eman zuen eta hala egin du. Nicolas Sarkozy presidentek, bere aldetik, euroagiria berresteari alde ez zegoela adierazi zuen eta hizkuntza gutxituen "egoera behin betiko ziurtatzeko" moduko legea hobeto ikusten zuela. Maiatzaren 7ko eztabaidan ez dute erabakirik hartuko, baina lantaldea osatuko dute.

GAIA

Gizarte hezitzaileak eskolan
*Guztion artean premia bereziei
aurre eginez*





Ikasleak, irakasleak, orientatzaileak, zuzendaria, familiak, ikastetxeko bestelako langileak (administrazioa, garbiketa...) horiek guztiek euren lekua dute eskolan, baina bada, pixkanaka, gure ikastetxeetan gero eta indar handiagoa hartzen ari den profesional taldea: gizarte hezitzaileak, alegia. Premia berriak sortzen ari dira eta horiei aurre egiteko laguntza behar izaten duten sarritan ikastetxeek. Ikasleek eskolan bertan zein eskolatik kanpo izan ditzaketen zenbait arazori aurre egiten eta horiek bideratzen lagundu ohi izan diete irakasleei gizarte hezitzaileek. Gurean, Gizarte Zerbitzuetan aritzen dira lanean eta eskolak hala eskatzen duenean edo haiek kasuren bat atzematen dutenean hurbiltzen dira eskolara.

G

Premia berriei, erantzun berriak

Gizartea gero eta konplexuagoa den heinean, eskolako errealitatean ere behar anitzak sortzen doaz. Eta hezkuntza komunitateak, premia berri horiei erantzuteko bitartekoak behar ditu.

Gizarte hezitzaileak eta euren lana hezkuntza ez formalak hartzen dituen zenbait esparrutan kokatu ditugu orain arte; hala nola, premia bereziak edota arazo sozialak dituzten taldeekin esku hartzen, gizarte-kultur dinamizazioan, esku-hartze komunitarioan, aisialdiko heziketan, kulturarteko gaietan, ingurumen hezkuntzan, helduen hezkuntzan, familiarekin esku-hartzen, harrera etxeetan... Baina hori guztia aldatzen ari da eta eskola gizarte hezitzaileen esparrua ere badela ikusten ari gara. Hezkuntza komunitate osoak elkarlanean aritu behar duela gero eta argiago ikusten dugu; eskolek, gurasoek, herriak, kultur zerbitzuek, gizarte zerbitzuek... elkarrekin aritu behar dute, bakoitzak bere ikuspegitik eta bere ardurak betetz. Hezkuntza formalaren eta hezkuntza ez formalaren arteko banaketa fisiko zurrunarekin hautsi beharra ikusten da gero eta gehiago, sortzen diren beharrei ikastetxeen dinamikatik bertatik erantzun integralak emateko.

Eta hori guztia aurrera doa pixkanaka; gizarte zerbitzuak eta eskolak elkarlanean aritzen dira maiz, nahiz eta oraindik norabide horretan pauso asko eman behar den. Elkarlan horrek, ikasleek beharrei erantzun osoak eta egokiak emateko aukera eskaintzen du eta beharrezkoa da, herri administrazioek, eskolek eta gizarte zerbitzuek elkarlenerako eta koordinaziorako egiturak sortzea.

Gizarte Hezitzaileen Elkargoeak jardunaldiak egin zituen joan den martxoan eta hausnarketa sakonagoa egiteko zutabeak finkatu zituzten. Gizarte hezitzaileak ikastetxean txertatzearen inguruan ondorio hauek atera zituzten:

1.- Irakasleek curriculumetik kanpoko zenbait gai lantzeko zailtasunak izaten dituzte sarritan.

2.- Planteamendua egin behar da: Kontraesanik ba al da gizarte hezitzaileek hezkuntza ez formalean aritzen diren profesional moduan hezkuntza formalaren esparruan esku hartzen badute?

3.- Gizarte hezitzaileak egiten duen esku-hartzeak orokortasunetik premia zehatzagoetara jo behar du.

4.- Gizarte hezitzaileak zailtasun gehiago dituztenekin diskriminazio positiboaren ikuspegitik esku hartzen du.

5.- Beharrezkoa da ardurak banatzea eta partekatzea, eta hainbat ikuspegitik lan egitea.

6.- Gizarte hezitzaileak, ikastetxearen dinamikatik abiatuta erantzun integrala ahalbidetu behar du.

7.- Gizarte hezitzailearen presentziak esku-hartze soziala eta esku-hartze hezitzailea bermatuko lituzke eskolatzeko prozesu guztian zehar.

Gizarte hezitzaileen egitekoak

Jesus Otaño: "Gizarte hezitzaileek eskola herrira zabal dezakete"

Gizarte Hezitzaileen Euskadiko Elkargoko presidentea eta Gipuzkoan, gazteekin gizarte hezkuntza esku-hartzeko udal taldeen ahokularia da Jesus Otaño, eta gizarte hezitzaileek eskolan egiten duten eta egin dezaketen lanari buruz hitz egin dugu harekin. Gizarte hezitzaileen lana sarritan behar den moduan zehaztu gabe dagoela esan digu, beste profesional batzuek egiten dutela euren lana eta hori horrela izan ez dadila aldarrikatzen dute. Gurean, eskola guztietan ez dago gizarte hezitzaileerik eta, kanpotik lan egiten dutenez, Gizarte Zerbitzuen eta ikastetxearen arteko koordinazioa beharrezkoa da Otañoren iritziz.

Hezkuntza ez formala esparru zabala eta anitza da, batzuentzat ezezaguna. Azalduko al zeniguke zein diren gizarte hezitzaileen lan esparruak?

Hezkuntza ez formalaren eremua oso zabala da bai, eta denboran zehar zehaztu gabe egon da. Eremu ez formalean egiten diren hezkuntza esku-hartzeak gizarte hezitzaileen esku hartze eremuak izan behar dira. Eta askotan, esparru horiek soilik gizarte hezitzaileei dagozkienak izan beharko lukete, adibidez, pertsonen eta taldeen zailtasun sozialak eta hezkuntza arloko zailtasunak dituzten kasuetan eta hainbat garapen testuinguruk edota gizarte bazterketek sortzen dituzten zailtasun kasuetan.

Dena den, aipatu behar da sarritan, beste profesional batzuek egiten dituztela gizarte hezitzaileei berez dagozkien lanak eta guk, Gizarte Hezitzaileen Elkargotik hori horrela izan ez dadin egiten dugu lan; bakoitzaren funtzioak zehaztu nahi ditugu eta gure eremu profesionala defendatu nahi dugu.

Esku-hartze soziala eta hezitzailea gizarte hezitzaileen lana izan beharko luke soilik. Elkargotik ikusten dugunez, hauek izango lirakeke gure lan esparruak: babes sistematik haur eta gazteekin egiten den

esku-hartze soziala eta hezitzailea, nerabeekin justiziaren eremuan egiten dena, espazio kulturaletan eta aisialdiaren dinamizazioan, arlo soziolaboralean, helduen etengabeko formazioan, baztertuta edo horretarako arriskuan dauden helduen kasuan, drogomenpekotasun kasuetan, adineko pertsonekin, ezindu psikiko, fisiko eta sentorialekin, ingurumen heziketan, osasun heziketan eta esku hartze komunitarioan... Horiek guztiak definitutako eredu eta metodologiak eskatzen dituzten programa zehaztuetan landu behar dira.

Zein da gizarte hezitzaileek eskolan duten funtzioa?

Araban, Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroan gizarte hezitzaileak ez daude ikastetxeen egituretan sarturik eta horren inguruko eztabaida egin beharko litzateke hezkuntza instituzioetatik. Dena den, badira era puntualean ikastetxeren batean esku-hartze sozialari eta hezitzaileari dagokion programaren bat lantzen ari diren profesionalak. Adibidez, badira ijitoak diren ikasleekin lantzen diren programak, eskolako testuingurura hobeto egoki daitezten eta eskola ijitoen errealitatera gertura dadin, haien eskolatze prozesua lagunduz.

Baina gizarte hezitzaileek esko-



lan egiten duten lan gehienak kanpotik egiten dute, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetatik. Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan ikas komunitateetan egiten den lana azpimarratu nahiko nuke, oinarrizko baldintza baita bertan Gizarte Zerbitzuetako gizarte hezitzaileek parte hartzea, baita familia hezitzaileak, adin txiki-koen hezitzaileak eta kale hezitzaileak ere.

Bestalde, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako taldeen eta ikastetxearen arteko koordinazioa beharrezkoa litzateke. Ikastetxea haur eta gaztetxoekin hezkuntza prozesuak laguntzeko ezinbesteko solaskidea da eta espazio bakoitzetik esku-hartze komunerako bideak zabaldu behar dira, partekatutako ikuspuntu batetik. Ikasle gehienak eskolatuta daude, baina zenbait kasutan ez da horrelakorik gertatzen. Badira ere harrera etxeetan dauden haurrak. Kasu horiek pixkanaka bideratzen doaz eta denbora behar dute gauzak bere onera buelta daitezen, hori dela eta esparru ez formalek egiten den edozein esku-hartze bi sistemen arteko koordinazioa eskatzen du.

Zein izan daitezke gizarte hezitzaile bat eskola komunitatean sartzeko arrazoiak?



Arrazoi nagusia haur bakoitzarekin egiten den heziketa proiektuaren garapenean dago. Ikastetxearekin egiten den koordinazio oso garrantzitsua da heziketa proiektu hori garatzeko. Oinarrizkoa da ikastetxean egiten duen prozesuaren jarraipenari buruzko informazioa eta gizarte hezitzaileekin erlazioz aritzen den espazioetako informazioa elkartrukatzea, horrek egoera hobetzeko bideak zabalduko dituelako eta eraikuntza pertsonal eta sozialeko haur edo gazte horiek egin behar duen heziketa prozesua hobetzen lagunduko duelako.

Haurrek eta gazteek bizi dituzten egoera zehatzen inguruko kezak etengabeak dira irakasleengan, baita portaeren gaineko edota jokareen gaineko kezak ere; askotan entzuten dugu irakasleen ahotik "ikasle honekin jada ez dakigu zer egin!" moduko esaldiren bat. Eskolara joaten ez direnen kasuan, DBHn batez ere, arazoak izaten dira eta lan koordinatua egitea beharrezkoa da. Askotan, gizarte zerbitzuak dira arazo atzematen dutenak eta eskolari hori lantzea eskatzen diotenak.

Zein dira gizarte hezitzaileek topatzen dituzten erronkak?

Gipuzkoan duela urte batzuk gizarte zerbitzu eta gizarte hezitzaileekin formazio saio batzuk egin genituen. Ondorio garrantzitsuak atera genituen. Uste dut, bost urte beranduago, bertan parte hartu zuten gizarte zerbitzu eta ikastetxeen arteko elkarlana hobetu egin dela, baina han ikusi ziren erronkak gaur egun ere badiugula. Orduan, inplikaturako hezkuntza agente guztiek parte hartzeko koordinazio espazioak indartzea eta sistema bien arteko ezagutza bultzatzea beharrezko

ikusi zen, besteak beste.

Nola hartzen dute parte gizarte hezitzaileek ikastetxean? Norekin aritzen dira lanean?

Kasuaren arabera izaten da, baina normalean, ikastetxeko zuzendaritza edo orientatzaileak izaten dira gurekin harremanetan jartzen direnak. Egokia litzateke tutoreek esku hartzea, ikasleengandik gertuago egoten direlako.

Batzuetan esku-hartzea ikastetxean bertan egiten dugu. Beste batzuetan, gizarte hezitzaileak eskolara joaten dira ikasleei zenbait gai inguruan hitz egiteko eta laguntzeko; normalean curriculumetik ateratzen diren gaiak dira, zeharkako izaera dutenak; kontsumo prebentziorako gaiak, harreman afektibo-sexualak, gizarte trebetasunak... Baina batez ere, arazoak dituzten ikasleekin egiten dugu lan.

Era berean azpimarratu behar da baita ere gizarte hezitzaileak eskolan sartzen diren izaera komunitarioko talde bakarra direla sarritan. Egoera hori baliatu beharko genuke, ikastetxea komunitatera zabaltzeko. Horrek aurrerapen handia ekarriko luke.

Nolako harremana izaten dute gizarte hezitzaileek haurren edo ikasleen irakasleekin?

Egoeraren arabera da. Harremana hobetzen joan da baina prozesua ez da guztiz erraza eta elkar ezagutzea ezinbestekoa da. Ikastetxeak gizarte zerbitzuak zer garen jakin behar du eta gizarte zerbitzuek ikastetxea ezagutu behar dute; zein diren bakoitzaren funtzioak eta kompetentziak.

Zer sare daude hezkuntza arautuaren, hezkuntza ez formaleko agenteen eta gizarte zerbitzuen artean? Eta nola

hobetu daitezke?

Egoeraren arabera da. Harremana hobetzen joan da baina prozesua ez da guztiz erraza eta elkar ezagutzea ezinbestekoa da. Ikastetxeak gizarte zerbitzuak zer garen jakin behar du eta gizarte zerbitzuek ikastetxea ezagutu behar dute; zein diren bakoitzaren funtzioak eta kompetentziak. Sistematizazioa beharko litzateke, protokoloak sortzea, haur eta gazteen heziketa prozesuan orientabide komunekin koordinazio arduratsua egiteko.

Gizarte hezitzailea, gero eta figura ohikoagoa izango al da eskolan?

Gizarte hezitzaileek gero eta paper garrantzitsuagoa behar dute herritarren beharrei erantzuteko, baita eskolan ere. Zalantzarik gabe, bide horretan goaz. Geroz eta gehiago ulertzen da zein diren gure funtzioak eta kompetentziak, esku-hartze sozialaren eta hezitzailearen profesionalak gara. Baina badugu desabantailarik, izan ere, oraindik nor garen eta "zertarako balio dugun" azaldu behar dugulako. Ez da ulergarria gizarte hezitzaileok eskolan ez parte hartzea, elkarren beharra dugu, ikasleek eta familiek behar dutelako.

Eskolan, beraz, etengabeko figura izan beharko al luke?

Bai, baina eztabaida dago gizarte hezitzaileek non egon beharko luketenaren inguruan; ikastetxe kanpoan edo barnean, hau da ikastetxearen egitura txertaturik. Extremaduran, Andaluzian edota Gaztela-Mantxan gizarte hezitzailea ikastetxeko egitura txertatua dagoen langilea da. Gizarte Hezitzaileen Elkargoan gai horri buruzko eztabaida hasi dugu, eskolan gure egitekoa garatu behar dugula pentsatzen dugulako.

Gizarte hezitzaileen esku-hartzea

HIRUKIDE ikastetxea

Elkarbizitzarako Behatokia, guztien topaleku

Tolosako Hirukide ikastetxean Elkarbizitzarako Behatokia sortu zuten joan den ikasturtean eta era horretan, gizarte hezitzaileek modu iraunkorrean parte hartzen dute ikastetxean. Gizarte hezitzaileek egiten duten ekarpena bereziki baloratzen du ikastetxeak, irakasleek, ikasleek edota gurasoek ez duten ikuspuntua ematen dutelako. Horrek Behatokiaren eta ikastetxearen lana aberasten du eta gustura daude esperientziarekin.

Hamabi urte dira gizarte hezitzaileak Tolosako udaletxearekin elkarlanean ari direla eta ondorioz, eskolarekin harremana dutela. Koordinazio maia dute, urtero hiru aldiz biltzen dira, arriskuan egon litezkeen haurren inguruko informazioa partekatzen dute eta erabakiak hartzen dituzte. Hirukide 2003-04 ikasturtean sortu zen hainbat ikastetxeren bat-egitearen ondorioz, eta hasieratik arduratu zituen bizikidetzaren gaiak. Bizikidetzaren inguruko plana egin nahi zuten, 2006-07 ikasturtean Eusko Jaurlaritzak bizikidetzaren plana egiteko proiektu pilotua sortu zuen, eskaera egin zuten eta aukera eman zieten. Horrekin batera, Bizikidetzaren Behatokia sortzeko aukera izan zuten eta horri ekin zioten. Hirukide, ikastetxe konplexua da, Txaro Etxeberria



orientatzailea eta bizikidetzako arduradunak esan digunez, eta bi Behatoki sortzea erabaki zuten: bata Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan, eta bestea DBHn, baina bien arteko koordinazioa erabatekoa da. "Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan bi guraso daude, irakasle bat, irakaslea ez den langilea, orientatzailea (ni) eta zuzendaria. Horrez gain, eskolakoa ez zen erakunderen bateko ordezkariaren bat sartu behar zen, lana aberastuko zuen norbait izatea nahi genuen, aukerak aztertu genituen eta gizarte hezitzaileekin gogoratu ginen segituan. Haiei esan genien eta berehala eman ziguten baiezkoa. DBHn, berriz, bi irakasle, guraso bat,

irakaslea ez den langilea, bizikidetzaren arduraduna, beste irakasle bat eta gizarte hezitzailea daude", esan digu Txarok.

Jendea oso inplikaturik dago eta arduradunak oso pozik: "2006an sortu genuen Behatokia eta urtean bost bat bilerak egiteko konpromisoa hartu genuen. Aurten zazpigarren bilerak egitera goaz, orain, maiatzean", aipatu du Txarok. Iaz Behatokiak zer eduki eta zer funtzio izango zituen zehaztu zuten eta aurten, Bizikidetzaren Behatokia zer den komunikatzea eta arauen inguruko lana egitea hartu zuten helburu moduan. Komunikazio hori DBHn landu dute batez ere, eta ikasleen partaidetza ere



asko ari dira lantzen. Telefono mobilaren inguruan ere arazoak izaten dituzte eta horren erabilera arautzeko erabakiak hartu dituzte eta *cyberbullyng*aren gaia landu dute.

“Niri bizikidetza Behatokia izateak lasaitasuna ematen dit. Uste dut guraso askok ikuspegi horrekin bat egiten dutela. Gatazkak beti egongo dira baina horiei nola aurre egiten zaien da gauza eta horretan laguntzen digu. Gatazkak ez ditugu saihestuko ez dugu egingo baina datorrenari aurre egiteko lasaitasuna ematen du”, esan digu Txarok.

Bizikidetza Behatokiak ez du erabakitzeko gaitasunik baina proposamenak egiten dituzte, horiek pedagogia taldera eramaten dituzte eta ondoren zuzendaritzak hartzen ditu erabakiak.

Gizarte hezitzaileen ekarpena

Gizarte hezitzaileak buru belarri da biltza lanean eta ikastetxearentzat oso baliagarria da euren lana: “Askotan eskola barrutik esango ez genituzkeenak esaten dituzte eta ekarpen interesgarriak egiten dituzte. Beste ikuspuntu bat ematen digute eta horrek aberasta-

sunak dakar; gurea formalak, itxia da, eta haiek inguru irekian egiten dute lana”, esan digu Txarok.

Luz Clemente Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako Bahatokian aritzen da lanean. Gizarte hezitzailea da Luz eta Tolosako Gizarte zerbitzuetan egiten du lan kale heziketa programan. Maila indibidualean egiten dute lan 11-18 urtekoekin eta familiarekin, talde mailan ere aritzen dira, koadrilekin, eta azkenik, maila komunitarioan. Azken horretan kokatzen da Elkarbizitzarako Behatokia. “Zerbait gertatzen denean egiten dugu lan, baina prebentzioa egitea ere gure lana da. Eskolekin lan egin behar dugula uste dugu eta Txarok zuten asmoa jakinarazi zigunean, bertan egon behar genuela ikusi genuen”, esan digu Luzek. Gurasoen ekarpena etxean izan ditzaketzen zailtasunen berri ematea da; Txarok, ikastetxearen ikuspuntua ematen du; eta gizarte hezitzaileek, gainontzekoek euren ikuspuntua zabal dezatela heziketari buruzko ikuspegi zabalagoa izatea da, ikastetxean oso zentratua egoten direlako.

Ikastetxeari ongi dator kio gizarte hezitzaileen lana komunitatera zabalteko. Izan ere, Luzek esan digunez, komunitateari buruz hitz egiten dutenean eskola komunitateari buruz hitz egiten dute soilik, ez dute ulertzen eskola komunitatea herri osoa denik. Denen, gizarte hezitzaileen lana definitu beharra dagoela dio: “Estatu espainiarreko beste komunitate batzuetan gizarte hezitzaileak daude eskoletan, baina politikarien ekimena izan da eta sarritan ez diote eduki logikorik eman; ez dute euren funtzioa zehaztu eta batzuk ez daude oso egoera onean. Batzuk haurrak autobusetik jaso eta gelara eramateaz arduratzen dira oraindik

inork ez dielako esan eskolan zer funtzio bete behar duten”.

Txaroren ustez, positiboa da eskolan gizarte hezitzaileak egotea, berdina zaio barrutik edo kanpotik lan egiten duten, baina euren lana beharrezkoa dela uste du. Izan ere, kanpoko ikuspegi, freskotasuna... ekartzen dute bere iritziz eskolara. Luzek zalantza du, ordea: “Gizarte hezitzailea, hezitzailea da eta eskolan egoteak zentzua du. Baina ikastetxea sistematizatuta dagoen moduren arabera, arlo soziala espazio txiki batera murriztua geratzen da. Uste dut garrantzitsua dela elkarlanerako espazioak sortzea eta agian, agertzen ari diren beste figura batzuek baino lotura handiagoa izan beharko genuke ikastetxeekin, azken batean hezitzaileak garelako. Gizartea aldatzen ari da eta alderdi berriak irakatsi behar dira, bizi-tzarako ohiturak, abileziak... Behintzat, ez dezatela beste profesional batzuek erabaki geuk zer lan egin behar dugun, zeren hori gertatu izan da. Hausnarketa garaian gaude, baina gizarte hezitzaileok eta ikastetxeek elkarrekin lan egin behar dugu”.



Gizarte hezitzaileen esku-hartzea

Kale dor kayiko Biharko ijitoak eskolan

Ijitoen elkarte da Kale dor kayiko eta izenak adierazten duen moduan (Kale dor kayiko, "Biharko ijitoak" esan nahi du), etorkizuneko ijitoen aldeko lana egiten dute. Bilboko Txurdinaga auzoan dute egoitza eta ijitoen eskubideak aldarrikatzea da bere egiteko nagusia; horien artean, ijitoak eskolatzea bultzatzen dute. Maiz arazokak izan dituzte, ingurukoek ez dituztelako ongi hartu edota gurasoek seme-alabak eskolatzeari garrantzirik eman ez diotelako. Elkartearen dute *Oprerroma (Eutsi ijito!)* programak ijitoen eskolatzea bultzatu nahi du eta hainbat gizarte hezitzaile dabilta horretan lanean.

Proposamen pedagogikoa lantzen ari da gaur egun Kale dor kayiko elkartearen Oscar Vizarraga zuzendariak esan digunez: "gerundioaren pedagogia", hain zuzen ere. Hezkuntza komunitateari egingo dioten proposamena lantzen ari dira eta hori, ijitoen izateko eran oinarrituko da.

Haur eta gazte ijitoek aukerak izatea nahi dutela esan digu Oscarrek: "Merkatura lanera joan nahi badute, joan daitezela, baina hori aukeratu dutelako, ez beste biderik ez dutelako. Aukera berdintasuna lortu nahi dugu eta heziketa akademikoak hori eskaintzen du. Eta heziketa akademikoa diogunean, akademikoa azpimarratzen dugu, ijitoak berez, baduelako heziketa, batzuek ulertzen ez duten arren. Etxean heziketa jasotzen dugu, baina akade-



mikoa falta zaigu eta horren eraginez, ijitoak mundu osoko bazterretan marjinez sozialetik oso hurbil daude". Oscarrek esan digunez, egia da duen izakerak ijitoa ez duela eskolara sartzera bultzatzen, baina sistema ere ez da arduratu ijitoak bertan sartzeaz: "Utzikeria dago. Ijitoak beti bizi izan garen moduan bizitzen jarraitu dugu eta instituzioek ez dute sarrera horretarako bitartekorik jarri. Ijitoen nortasuna ez dute eutsi beharreko zerbaiten moduan ikusi, baizik eta aldatu beharreko zerbaiten moduan. Besteen modukoak izan behar dugu, integratu egin behar dugu eta integrazioa, hitz madarikatu hori, batzuek disoluzio baten moduan ikusten dute. Geure nortasunari eutsi nahi diogu eta gure hizkuntza berreskuratu nahi dugu; hori ez da errespetatu eta ez da errespetatzen munduko leku askotan; hori da gure aldarrikapenetakoa bat".



Baina, aurrerapenak egin dira. Duela 20 urte egoera okerragoa zela esan digu Oscarrek. Orduan sortu zuten Kale dor Kayiko elkartearen eskolatik pasatako zenbait ijitok eta Adarra talde pedagogikoak. "Ni eramaten ninduten eskoletara ijitoak motibatzeke eta ikusteko ijitoa izanik ere, ikas daitekeela. Une batean elkartearen sortzea bururatu zitzaigun lan horrekin jarraitzeke; helburua euskal irakasleei ijitoen kulturaren inguruko aholkularitza eskainiko zien elkartearen sortzea zen. Elkartearen moduan jaio ginen eta ikastaroak ematen hasi ginen. Hortik aurrera unibertsitateko sailekin elkarlanerako hitzarmenak egin genituen etorkizuneko profesionalek gaurkoek dituzten gabeziak izan ez ditzaten. Baina gutxi zela ikusi genuen, familiengana joatea eta lanean hastea falta zitzaigula. Kale dor kayiko sortzea erabaki genuen orduan", azaldu digu Oscarrek.



Kale dor kayiko saria ematea bururatu zitzaizen hasieran. Ikasturte amaieran, ikasleei ikasteak eskatzen dien ahalegina aitortzea zen helburua. Baina denborak aurrera egin zuen eta horri jarraipena eman behar ziotela pentsatu zuten, orduan sortu zuten *Opre rroma* izeneko programa, ijitoen herriak formazioa jasotzeko helburuz.

Opre rroma: eutsi ijito!

Iratxe Azofra da *Opre rroma* programaren arduraduna. Guztira zortzi hezitzaile daude lanean. Esan digunez, ijitoak eskolan normalean ez dira Bigarren Hezkuntzara iristen eta ez dute eskola graduaturik lortzen, beraz, garrantzitsua da haiekin motibazio lana egitea. Inguruak ez die gehiegi laguntzen eta egoera hori gainditzeko moduetako bat ikasketak direla uste dute. "Helburuetako bat ikasle ijitoei babes ematea da, eta ikasketetan Bigarren Hezkuntzatik gora jotzeko animatzea. Ikastetxera joaten gara lanera, argi dugulako gure laneko plana elkarriketan, parte-hartzean, elkarlanean eta elkarbizitzan oinarritzen dela", esan digu Iratxek. Ikaslearekin, ikastetxearekin eta familiarekin egiten dute lan eta komunitatea ere kontuan hartzen dute, inguruak gazteengan eragin handia duelako.

Ikaslearekin, eskolan duen egoeraren arabera, lanerako plana egiten du-



te. Programa lau taldetan banatzen dute:

1.- Ikastetxera maiz joaten diren ikasleak. Gehienetan Lehen Hezkuntzaren dena gainditzeko duten ikasleak izaten dira, Kale dor kayiko saria jaso dutenak.

2.- Eskolara erregularatasunez joaten ez diren ikasleak.

3.- Irakaskuntza osagarriak edo Lanbide Hastapeneko ikasketak egiten ari diren ikasleak.

4.- Nagusiak. Bigarren Hezkuntzako lehen zikloa gainditua dutenak eta DBHko 3. mailatik gora ari diren ikasleak.

Taldearen arabera, aldatu egiten da esku-hartzea. Baina esku-hartzea lau gai multzo handiren inguruan egiten dute beti:

1.- Motibazioa. Gai nagusia hori da, ikasleek askotan ez dute motibaziorik, eta familiak eta irakasleek ez diete gehiegi laguntzen.

2.- Ikasketetarako laguntza. Askotan ikasten ez dakitela esaten dute eta pixkanaka erakusten diete, adibidez, eskemak egiten.

3.- Elkarbizitza. Gatazkak ebazteko tresnak eskaintzen dituzte.

4.- Autoestimua. Autoestimurik gabe iristen dira eta ez dute sinesten noraino hel daitezkeen. Hori lantzea oso garrantzitsua da.

"Hiru hilero programazio indibidualak egiten ditugu, helburuak eta horiek lortzeko jarduerak eta ebaluazioa zehaztuz. Ikasleekin, banakako tutoretzak erabiltzen ditugu, ikasgelaren martxan ahal den gutxien eragiten saiatzen gara. Gure helburua eskola porrotasaihestea bada, ez du zentzurik matematika orduan bertatik ateratzea, espazio alternatiboak bilatzen saiatzen gara. Askotan jolasgarrietan egiten dugu lan

haiek gustuko ez duten arren, eta kasu batzuetan institututik kanpora esku hartu behar dugu. Banakako tutoretza horiek 15-20 minutukoak izaten dira astero", azaldu digu Iratxek. "Eta batzuetan, helburua komuna denean, taldekako tutoretzak ere erabiltzen ditugu. Adibidez, motibazioa lantzen ari bagara eta taldea txukuna dela ikusten badugu, elkartu egiten ditugu eta biren edo hiruren artean lantzen dute gaia", jarraitu du. Horrez gain, hainbat ikastetxetako adin bereko ikasleak elkartzen saiatzen dira. Arratsalde batez elkar-tzen dira, elkar ezagutzen dute, esperientziak elkartrukutzen dituzte eta konturatzen dira ez daudela bakarrik. Batzuetan erreferente izan daitezkeen pertsonak eramaten dituzte ikastetxetara, ikasleek ikus dezaten, ikastea posible dela eta ez dela kaltegarria.

Irakaslearekin elkarlanean aritzen dira, helburuak finkatzen dituzte eta horrez gain, ikastetxeko beste programetan parte hartzen saiatzen dira. Izan ere, kalitatea lortzeko guztien arteko elkarlana beharrezkoa dela uste dute. Eta familiarekin ere parte-hartze bideak zabaltzen saiatzen dira. "Eskolan arrakasta nahi badugu, inguruaren parte hartzea gero eta handiagoa izan, emaitzak hobekiago izango dira. Familiak ikasleak animatzera bultzatu nahi ditugu, ez ditzatela bakarrik utzi", esan digu Iratxek.

Garrantzitsuena ikasleek beldurrik ez izatea da, eta ez pentsatzea ikastegatik euren nortasuna galduko dutela. Elkarbizitza eta errespetua beharrezkoak dira horretarako eta askotan ezagutza ezagatik egoten diren gatazkak alde batera uztea beharrezkoa dela uste dute Kale dor kayikon.

irene

lopez-goñi

ELKARRIZKETA

Nafarroako Ikastolen Elkarteko pedagogia arduraduna eta
NUPeko irakaslea

**// Irakasleen prestakuntza
diseinatzeko une egokia da, eta hori
baliatzen jakin behar dugu //**



irene lopez-goñi

E

// Eskizofrenia moduko zerbait dugu; alde batetik, euskal curriculumarekin bat egiten dugu eta guretzat erreferente bat da eta, beste aldetik, Nafarroako gobernuak legez ezartzen diguna dugu. (...) Garrantzitsua iruditzen zait eskolak ematean egiten duguna gaur egungo hizkuntza pedagogikora pasatzea, hots, konpetentzien hizkuntzara.

//

Irene Lopez-Goñi, Nafarroako Ikastolen Elkarteko Pedagogia arduraduna eta NUPeko irakaslea da. Curriculumaren barnean, gaitasunen gaia lantzea garrantzitsu jotzen du Irenek, eta are garrantzitsuago, irakasleak gaitasunen arabera lan egiteko prestatzea. Hori dela eta, ikerketa egin du berriki Europako beste eredu batzuk aztertze eta proposamen berria egiteko. Unibertsitatera datorren aldaketa irakasleen prestakuntza diseinatzeko baliatu behar dela uste du. Irakasleen prestakuntzari buruz aritu gara, eta baita Nafarroako ikastolen egoerari buruz ere. Orain arte egindako lana egokia izan dela dio irakasleak, eta, akaso, denbora batez gelditu eta etorkizunera lasaitasunez begiratze-ko unea dela.



Nafarroako ikastolek hainbat arazo eta oztopo izan dituzte aurrera egiteko. Zein da gaur egungo egoera?

Hamalau urte daramatzat Nafarroako Ikastolen Elkartean, eta gizartearen aldaketarako une garrantzitsua izan daitekeena, Nafarroako ikastolentzat nik ezagutu dudana lasaia dela esango nuke. Gorabehera handiak izan dira gure historian zehar eta sorreratik, legezatu gabeko ikastola multzoa izan dugu. Horrek, kasu batzuetan (Erentzun ikastolaren kasuan, esaterako) 30 urtez iraun duen borroka eragin du eta ondorioak jasan ditugu, halaber, bai profesionalki eta baita geure artean ere. Ikastola horiek ez dituzte gainerako ikastetxeek izan dituzten baliabideak jaso, ez giza baliabideak, ezta baliabide didaktiko eta pedagogikoak ere. Gainerako ikastolek ikastola horiek babestu dituzte, eta horrek menpekotasun egoerak eta gauzak egiteko era bereziak sortu ditu; urteetan zehar emandako babesa eskertu behar zaie, beraz. 2007ko dekretuarekin, legezatu gabeko ikastolak legezatu zituzten, eta horrekin batera proiektu batzuk bidean geratu dira, eta irakasleek eta gurasoek egindako lan handia, neurri batean bederen, ere bai. XXI. mendean garrantzitsua zen gurasoek jakitea seme-alabek euren ikastolan eskola liburua izango zutela; izan bazuten, baina beste era batera, edo beste eskola batzuekin akordioak lortuta. Orain, gutxieneko babes administratiboa lortu da eta bitxia da, hainbeste urte eskola liburu horiek eduki nahian igaro ondoren, legeak, berriki, deuseztatu egin ditu. Beraz, poz txiki hori ere ez dute izango. Baina, hori guztia gaindituta, nik uste dut etorkizunari baikortasun-



nez begiraten diogula, alderdi negatiboa alde batera utzita.

Berako Labiaga ikastolan ere gorabehera handiak izan ziren. Zertan da auzia?

Beran, gorabehera handiak izan ziren Bigarren Zikloan. 1992tik borrokan aritu dira, eta lan ikaragarria egin dute etapa hori legezatzeko. Berako klastroa eredugarria da, lan izugarria egin dute; proiektuan sinesten zuten, urteak eman dituzte gutxiago kobratzen, soldata elkarren artean banatzen eta Ikastolen Elkartek duen elkartasun kutxatik dirua jasotzen. Ikastolan DBH izateko urte askotako borrokaren ondoren, erabakia hartzeko unea iritsi zen: Lehen Zikloari soilik eustea edo Bigarren Zikloa eskatzen jarraitzea, eta batzarrak Lehen Zikloari eustea erabaki zuen. Jende asko urte luzez aritu da lanean, eta egindako lana islatuta gertu ez dela sentitu dute baina batzarraren erabakia onartu dute.

Dena den, Nafarroako Ikastolen Elkartetik lanean jarraitzen dugu, ikastolek gurekiko identifikazio handia dute eta horrek abantailak dakartza. Askotariko ikastolak ditugu: handiak, txikiak, herrietakoak, hirietakoak... Haien artean aldeak daude, egoera soziolinguistiko ezberdinak dituzte, baina heterogeneotasun horretan, Nafarroako Ikastolen Elkartek biltzen gaitu.

Nafarroako ikastolek, egoera politikoak eta egoera soziolinguistikoak eraginda, ezaguri bereziak dituztela aipatu duzu. Etorkizunean Ikastolen Elkartea erakunde nazional bakarra izango da. Nola bizi du prozesu hori Nafarroako Ikastolen Elkartek? Nola ikusten du bere burua erakunde nazional horretan?

Nik uste dut anbiguotasunez bizi dugula. Alde batetik, Nafarroan identifikazio handia dago herrialdearekin berarekin. Nafarroako Ikastolen Elkar-

tea talde bat da eta beharrezkoa da, baina, aldi berean, euskalduntasunaren ikuspegi zabala dugu eta Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioaren zati gara, jakina. Bien aldeko sentimendua dagoela uste dut.

Hitz egin dezagun curriculumari buruz. Nola ari da aplikatzen Nafarroan?

Lan handia dugu egiteko. Eskizofrenia moduko zerbait dugu; alde batetik, euskal curriculumarekin bat egiten dugu eta guretzat erreferente bat da eta, beste aldetik, Nafarroako gobernuak legez ezartzen diguna dugu. Hori da dugun markoa, eta orain arte egoera horretan mugitu gara. Pedagogok, gure ikastoletako ikasgeletan gertatzen denak kezkatzen gaitu eta garrantzitsua iruditzen zait, eskolak ematean egiten duguna gaur egungo hizkuntza pedagogikora pasatzea, hots, konpetentzien hizkuntzara. Hori erronka handia da, ez da erraza, eta arrazoi as-

irene lopez-goñi



E

// Guk irakasleen prestakuntzan beti oso irakaskuntza teorikoa egin izan dugu, eta hori da gure arazoa. European, curriculumak berritzen ari diren estatu guztiek, bai Portugalek, bai Ingalaterrak, bai Frantziak... garrantzi handiagoa ematen diote practicumari. Izan ere, gaitasunak praktikatzen ikasten dira, bereziki gaitasun profesionalak.

//

korengatik, gainera. Maila batetik bestera egoera asko aldatzen da. Lehen Hezkuntzan egokitzapen txikiak beharko genituzke hori egiteko, baina Bigarren Hezkuntzan arazoa sakonagoa da; hasteko, edukien azterketa sakona egin beharko litzateke, bestela zaila izango litzatekeelako aldaketa egitea. Bigarren Hezkuntzan edukiak transmititzeko era tradizionalari jarraitzen diogu, baina orain, beste gauza bat eskatzen zaigu, eta eduki teorikoak edo akademikoak guztiz baztertu gabe gure ikasleak ikasi dutena praktikan jartzeko gai ote diren egiaztatu beharko dugu. Horrek lana eskatzen du, eta bada Ikastolen Elkartek berriki proposatu duen ekimen bat: pedagogiaz arduratzen garenok bilera batzuk egitea kompetentzien paisaiari norberak bere alorretik begiratzeko (hizkuntza, kirola, aisia eta abar). Curriculumaren diseinuan esperientzia handia duten bi irakasle etorri zitzaizkigun Belgikatik. Proposamen interesgarria egin zigten: ikasleek ikasitakoa egiaztatzeke, kompetenteak diren edo ez ikusteko, egoerak sortu behar ditugula. Ideia interesgarriak azaldu zituzten, eta orain gure lana horiek jasotzea eta lantzea da.

Gaitasunen gaia lantzeko irakasleen prestakuntzaren beharra aipatu duzu. Ikerketa egin duzue Unibertsitatean horren inguruan. Azalduko al diguzu zer ikertu duzuen eta zer behar ikusten duzuen alor horretan?

Alde batetik, gure ikasleak kompetenteak izateko zer motatako curriculumak diseinatu behar dugun, eta beste al-

de batetik, zer irakasle mota behar dugun; zer gaitasun izan behar dituen irakasle batek gaur egun gure eskolan. Guk, ikerketa horretan, bigarren gaia-rekin lotutakoa aztertu dugu: European Bigarren Mailako Irakaskuntzako irakasleak prestatzeko zer eredu dauden aztertu dugu, irakasleek zer motako profilak dituzten eta zer gaitasun lantzen dituzten. Portugal, Herbehereak, Frantzia, Italia, Alemania, Ingalaterra, Finlandia eta Suedia aztertu ditugu. Unibertsitatean bi Erasmus programaren arduradun izan naiz, bai Holandan eta baita Portugalen ere, eta horrek lana erraztu du neurri batean. Eredu idealik ez dago ziur aski, baina ikusi behar dugu zein diren interesgarriak, zergatik diren interesgarriak, eta Euskal Herrian zer eredu aplikatu ditzakegun edo erabili ditzakegun. European gaitasunen araberako curriculumak ikusi ditugu irakasleen prestakuntzarako plangintzetan, eta eredu batzuk interesgarriak dira.

Aztertu dituzuen eredu horietatik guztietatik, zein da zure ustez hemengo egoerara egokien moldatuko litzatekeena?

Agian, aurkitu dugun onena Herbehereetako da. Gaitasun batzuk ezartzen dituzte, curriculumak gaitasun horien arabera aztertzen dute, eta unibertsitateko curriculumak ere horri begira dago. Lehengo curriculumak antz handia zuen guk genuenarekin. Guk irakasleen prestakuntzan beti oso irakaskuntza teorikoa egin izan dugu, eta hori da gure arazoa. European, curriculumak berritzen ari diren estatu guztiek, bai Portugalek, bai Ingalaterrak, bai Frantziak... garrantzi handiagoa ematen diote practicumari. Izan ere, gaitasunak praktikatzen ikasten dira, bereziki gaitasun profesionalak. Guk aldaketa behar dugu alor horretan, bai ikasleekin eta baita irakasleen prestakuntzari dagokionez ere. Baina irakasleen prestakuntzarekin buruhausteak ditugu, unibertsitateak oso teorikoak direlako, jakintzaren gordeleku moduan ikusi dira beti, eta ezagutza praktikarekin lo-

tzea mailaz jaiste izango balitz bezala ikusten da; ezagutza praktikoa ez da unibertsitateko ezagutza gisa hartzen. Badira arazoak, beraz.

Unibertsitatean, aurrerantzean izango diren aldaketak prestatzen ari dira. Balia al daiteke une hau irakasleen prestakuntzan beharrezko ikusten diren aldaketa horiek egiteko?

Baina, jakina. Une hau oso interesgarria da, unibertsitatean gauza asko aldatzen ari direlako. Irakasle-ikasketa berrien diseinuaren dekretua atera da, baina gauza asko lotu gabe utzi ditu dekretuak. Marko nagusia definitu dute,

baina besterik ez, barruko paisaia margotzeko dago. Hori arriskutsua da, unibertsitateko betiko eredia ahalik eta gutxien aldatuta aplikatu dezakegulako, gure artean ez haserretzeko eta bakoitzak ematen duena ematen jarraitzeko. Baina pena izango litzateke aukera galteza, ikasketak nahi dugun eran diseinatu ditzakegulako eta irakasle berrien profila, curriculumaren eta gaitasunen arabera diseinatu dezakegulako. Alde bate-tik, curriculum bera diseinatu beharko da, baina garrantzitsua da, baita ere, unibertsitatearen, administrazioaren eta ikastetxeen arteko lotura bermatzea. Hori guztia taxutu gabe dago, eta lotura horiek egitea zaila da; unibersi-

tateak ikertu egiten du, goi mailako eremuan aritzen da, bai arlo akademikoan eta baita ikerketa arloan ere, baina ez daki oso ongi errealitatean zer gertatzen den. Ez du biderik ikastetxeetan zer gertatzen ari den, eta irakasleek zer behar duten eta zer eskatzen duten jakiteko. Ikastetxeetan ere, oso gutxitan hartzen da kontuan unibertsitatea; prestakuntza iraunkorrerako, esaterako, ez da unibertsitatea kontuan hartzen. Arazoa handia da, eta ez dakit nola, baina unibertsitatea, administrazioa eta ikastetxeak lotzea beharrezkoa da, hortik sortuko baita derrigorrean izan behar dugun lankidetzak.

Eta nola gauzatu beharko litzateke irakasleen prestakuntza hori?

Irakasleen prestakuntza hiru eremu bereiz daitezke: hasierako prestakuntza, "indukzio tarte" deitzen dena eta prestakuntza iraunkorra. Irakasleen prestakuntzari buruz hitz egitean, soilik hasierako prestakuntzaz ari garelako pentsatzen dugu, baina hori akats nabarmena da. Indukzio tarteak, hau da, irakasleak ikasketak amaitu eta lanean ematen dituen lehendabiziko urteak, oso garrantzitsuak dira, denbora tarte horretan garatzen baitira bereziki irakasleen gaitasun profesionalak. Unibertsitateak lehen eremuan baino ez du garrantzirik, gero ahaztu egiten da eta okerrenera zera da; hutsune hori ez duela inork betetzen, administrazioak ere ardura hori ez duelako bere lehen-tasunen artean kokatzen. Hemen, gainera, teoriarik ikasitakoa era deduktiboan jartzen da praktikan, ez da era induktiboan egiten, beste herrialde batzuetan bezala. Beste herrialde batzuetan irakaslegaiak ikastetxera joaten dira eta, ondoren, unibertsitateara bueltatzen dira zer egoera topatu duten aztertzerako, praktikatik abiatzen dira. Agian, biak landu behar dira, baina gauza asko dugu aztertzerako, eta une egokia eta polita da horretarako. Baliatzen jakin behar dugu.

Ikerketa horren ondoren, proposamenik egin al duzue?



irene
lopez-goñi

E

// Gure irakasleek, oraindik, atxikimendu errotua dute beren eskolako proiektuarekin eta hori gure alde dugu. Abiapuntua hori sendotzea da eta ondoren, zuhurrena, arazo berriei erantzutea izango litzateke.

//



Bai. Ikerketaren helburua proposamena egitea zen. Nafarroan administrazio berria dugu, eta badirudi gauzak egiteko gogoia duela. Administrazioa gakoa da horrelako gaitan, enplegu sortzaile nagusia delako eta hala ez denean, gure kasuan, esaterako, prestakuntza eredu berriak martxan jartzeko bitarteko ekonomikoak ditu. Eskolak funtsezkoak dira eredu hori abiatzeko, eta etorkizuneko irakasleen bilgune izango diren ikastetxeak baliabidez hornitu beharko dituzte. Irakaslegaiak ikasgeletan sartzea ez da nahikoa bertan tutore egokirik eta aditurik aurkitzen ez badute. Lan aukera berria izango litzateke gaur egun eskoletan dauden irakasleentzat. Tutore horiek ordu batzuk izango lituzkete lan hori egiteko, bere prestakuntzarako eta baita unibertsitateko irakasle taldearekin koordinatzeko ere. Israelen, adibidez, tutore horrek beste funtzio pedagogiko batzuk ere baditu eta hura da unibertsitatearekin harreman zuzena duena edo, adibidez, legea aldatuz gero,

horren gaineko prestakuntza berezia jasotzen duena. Ondoren bere ardura izango litzateke hori guztia ikastetxeari eta irakasle berriei transmititzea.

Irakasleen prestakuntzaren garrantzia aipatu duzu, ikasleak gaitasunetan hezteko eta ikastetxeetatik ikasle prestatuak ateratzeko. Zein dira irakasle horiek izan beharko lituzketen ezaugarri nagusiak?

Lehenik, berezkoak ditugun gauza egokiak indartu eta ziurtatu behar ditugu. Gure irakasleek, oraindik, atxikimendu errotua dute beren eskolako proiektuarekin eta hori gure alde dugu. Abiapuntua hori sendotzea da eta ondoren, zuhurrena, arazo berriei erantzutea izango litzateke. Gaur egungo eskolan askotariko partaideak izan behar ditugu, ez soilik irakaslea, baizik eta irakaslea, gizarte eragileak, udaletxetako hezkuntza arduradunak... Eskola gizarteari zabaltzea garrantzitsua da. Gu nahiko irekita egon garela uste dut,

Europarekin alderatuz ikusten baitugu eskolak gizartearekin lotura izan dela. Hemen askotan ikastola da herriko hainbat jaialdi antolatzen dituenak: Olentzeroa dela, festa bereziren bat dela... Bide hori ez dago itxita, baina taldean lan egiteko gaitasunak ere garatu behar dituzte irakasleek. Sentsibilitate soziala duen irakaslea behar dugu, etengabe aldatzen ari den errealitate sozialera moldatuko dena.

Eta bestetik, bada, gurean gutxi landu dugun alderdi bat, harremanekin lotura duena: komunikatzen jakitea, alegia. Horretaz jabetzea oso garrantzitsua da; irakasleek komunikatzen baldin badakite, berezko gaitasuna dutelako da, ez guk bereziki landu dugulako. Eta gaitasun hori oso garrantzitsua da.

Etorkizunari begira zer lehentasun ikusten dituzue?

Hiru prestakuntza motak, -hasierakoa, indukzio garaikoa eta iraunkorra- era koherentean lotu beharko genituzke. Indukzio tartearena lantzen ari gara Ikastolen Elkartean; ea nola egin dezakegun hori era egokian. Prestakuntza iraunkorrari dagokionez, ikuspegia aldatzea da erronka nagusia, eta gela barruan gertatzen dena ulertzen lagundu behar diogu irakasleari. Orain denok ikasgela barruan sartu behar dugu elkarrekin ikasteko. Jada ez diogu inori erakutsi behar onak garelako. Hori erakutsita dago, Euskal Herriak erakutsi du bere ereduak funtzionatzen duela. Prestakuntza oso garrantzitsua da, baina proiektuen bidezko prestakuntza; gela barnean gertatzen dena aztertu behar dugu eta denok elkarrekin ikasi. Ikuspegi aldaketa behar da alde horretatik. Gainera, eredu onak ditugu, badiara irakasle interesgarriak. Nik uste dut hemen irakasle motibatuak ditugula, gurean irakasle izateak plusa du, eta, gaur egun, irakasleok gizartea euskalduntzeko eragilerik garrantzitsuenak izaten jarraitzen dugu. Beraz, oraindik ardua berezia dugu, motibazio berezia eta hori eutsi behar diogu. Gurean irakasleek lan asko egiten dute euska-

raren alde eta, beraz, gizartearen alde. Hori aitortu behar zaie.

Eta prestakuntza arloan egon litezkeen horiez gain, ba al da beste erronkarik?

Mundu globalizatuak hainbat erronka ezartzen dizkigu. Alde batetik, Mendebaldean, familiaren egituraren aldaketa erronka bat da. Etorkinak ere hor daude, Nafarroan asko daude, eta bakar batzuk hurbiltzen dira ikastolara; gaztelaniazko ereduera jotzen dute gehienek eta hori dela eta, bistan da, gure hizkuntza ereduak egokitu behar ditugula. Hor ere badugu zeregina, ez dakigulako oso ongi nola aritu, eta unibertsitatean ere ez diegu asko laguntzen horretan. Elkarlana bultzatu beharra dago, individualismorantz jotzen ari gara eta. Eta bestetik, erronka bat izango litzateke, gauzak etengabe egiten aritu beharrean, pentsatzeko tarte bat hartzea, konturatzeko bide luzea egin dugula eta ongi ari garela.

Amaitzeko, aipa ditzagun Nafarroako Ikastolen Elkarrekin esku artean dituen proiektuak. Proiektu horien artean irakurketa ulertzeko mintegia duzue. Azalduko al diguzu zertan oinarritzen den?

Lan interesgarria egiten ari gara. Irakurketaren ulermena hobetu behar genuela ikusi genuen, eta ez genekien oso ongi nola egin. Hasteko horri buruz asko dakien pertsona bat ekarri genuen, Victor Moreno, harekin aritu ginen eta irakasleen prestakuntzarako alderdirik garrantzitsuenak zerrendatu genituen. Urtebete pasatxo eman genuen harekin, baina nahikoa ez zela ikusita, mintegia sortu genuen gure artean; irakurketa ulertzeko mintegia. Irakasleek, aztertzen genuen edozein gairen inguruko proposamen didaktikoa egin behar zuten. Bi urtez aritu gara era horretan, irakasleek testuak eta galderak sortzen zituzten, gaitasun jakin bat gelan nola landuko zuten pentsatzen zuten, eta proposamena mintegira ekartzen zuten. Pixkanaka, irakurketa ulertze-

ko gaitasun horiek ikasgelan lantzeko proiektuak eginez, irakasleen prestakuntza ziurtatu dugu. Benetako prestakuntza egin dugu, ez soilik entzunez eta praktikan egin gabe, baizik eta denek parte hartuz. Orain, lanak jaso ditugu eta materiala talde txikiagoan aztertzen ari gara. Guk landu ondoren, berriro ere batera jarri ohi dugu, ikastolara eraman ohi dugu, bertan praktikan jartzen dute eta baloratu egiten dute. Feed-back horretan ari gara eta oso pozik gaude. Hiru edo lau urte dira, baina denbora horretan lanaketa interesgarria eta zabala egin dute irakasleek. Irakurketa ulertzeko proiektuak, beraz, irakasleen prestakuntzarako balio izan du eta baita materiala sortzeko ere. Norbaitek materialen bat sortzen du, beste ikastetxe batean aplikatzen da, eta emaitzaren arabera ikusten dugu egokia den edo ez.

Irakasleen prestakuntzarako oso interesgarria izan da, eta, bide batez, prozesua amaitzen denean, irakurketaren ulermenerako material izugarri ona izango dugu.

Pedagogo ibiltaria dela dio Irenek, asko gustatzen baitaio eskolak bisitatzea. Edozein tokitara joaten dela ere, bertako eskolaren bat bisitatzen du. Europako eskola mota gehienak ezagutzen ditu: Montessori, Steiner, Gardner, Pedagogia Instituzionala... Berdin dio bidaiaren arrazoia zein den, laneko bidaia den edo oporrak diren; beste batzuentzat elizak eta monumentuak ikusi beharreko elementuak dira, eskolak dira derrigorrezko irenerentzat.

Arantzako aterpea

Euskaraz ongi pasa? Jakina!

Arantzako aterpetzeko egonaldiak hizkuntzaren erabilera indartzeko erabiltzen dira, besteak beste. Urtxintxa eskolako haur eta gazte arlotik kudeatzen da egitasmoa eta urte osoko iraupena du. Arantzako aterpetxea kudeatzeko koordinatzaile bat dago bulegoan eta hiru begirale aterpetxean, interbentzio arloa gauzatzen. Hizkuntz egonaldiak Nafarroako Gobernuko Hezkuntza departamentuko Euskara Atalak antolatzen ditu, Nafarroako ikastetxeetako haurrek eta gazteek eskola garaian jasotako edukiak praktikan jar ditzaten. Sei eguneko egonaldiak izaten dira udalekuan, uztailan eta abuztuan, eta bost egunekoak ikasturtean zehar. Azken horiek astelehenetik ostirala bitartean luzatzen dira eta ikasleak irakaslearekin joaten dira Arantzara. Hik Hasi aldizkariko 116. aleko "... goza nazazu gehiago" atalean Izaro Susperregik adierazi zuen moduan, mota horretako irteeretan ikasleek eta irakasleek elkarrekin pasatzen dituzte eguneko hogeitalau orduak. Ikastetxean igarotzen dituzten orduen aldean, lau edo bost aldiz gehiago luzatzen dira harremanak eta kantitatean baino gehiago, kalitatean lortzen dira emaitzarik esanguratsuenak. Testuinguru horretan egiazko harremanak sortzen dira ikasleen eta irakasleen artean.

Bestalde, Arantzako herriak berak ere egitasmoaren helburuak lortzen laguntzen du. Haurrak ez dira soilik aterpetxean egoten, eta kalera irtetzen direnean, klean entzuten duten hizkuntza euskara da. Ondorioz herritarrekin komunikatzeko euskara erabiltzea ezinbestekoa dute. Aterpetzeko langile guztiak ere, euskaldunak dira.

Metodologia aldetik hizkuntz jolasak eta animazio jolasak erabiltzen dira, baina garrantzi handia ematen diegu ekintza antolatuak ez dauden mementoei. Une horiek guztiek (esnatzea, otorduak egitea, atsedean garaiak, dutxa garaia, oheratzea...) "eguneroko bizitza" osatzen dute, eta arrisku handia dago haur eta gazteak erdaraz mintzatzeko; horregatik, ongi antolatu beharreko eremua da.

XABIER ORMAZABAL. URTXINTXA ESKOLAKO HAUR ETA GAZTE ARLOKO ARDURADUNA

Euskaraz ongi pasa daitekeela eta euskaraz bizi daitekeela erakutsi nahi diete ikasleei Arantzako egonaldietan. Loraine, Beñat eta Iriber hezitzaileek dute horren ardura. Jolasen bidez euskaraz aritzea eta ongi pasatzea bateragarriak direla ikusten dute ikasleek, eta Arantza herri euskalduna izanik, ingurune euskaldun batean bizitzea zer den ezagutzen dute.

Zazpi edo zortzi urtetik 15 urtera arteko ikasleak joaten dira Arantzara. Lehen Hezkuntzako 3. mailatik, DBHko 3. mailara. Aste osoa pasatzen dute Arantzara, eta A eta D ereduakotako ikasleak hartzen dituzte, Nafarroakoak

guztiak. Gu han izan ginenean, DBHko 1. mailako eta 2. mailako ikasleak zeuden. Bi ikastetxetako ikasleak ziren: Faltzeskoak batzuk eta Martzillakoak besteak; guztiak A ereduakotakoak. Beren artean gaztelaniaz egiten dute, euskaraz ez dakitelako, eta hezitzaileekin ere gaztelaniaz hitz egiten zuten Arantzara. Izan ere, Iruñerriko ikasleak euskaraz entzuten ohituago dauden arren, Erribera aldekoekin ez da horrelakorik gertatzen. Horien kasuan, helburua euskara entzutea eta esamolde batzuk ikastea da. Baina egonaldiaren helburua aldatu egiten da D ereduakotakoekin; normalean ez dira ingurune eus-



kaldun batean bizi, eta egonaldia baliagarria izaten da dakitena indartzeko.

Euskara lantzeko, jolasak egiten dituzte, batez ere. Kanpoan edota etxean, edozein leku da ona euskara lantzeko. “Jolas horiekin ez da euskara zuzen-zuzenean lantzen, baina guk euskaraz hitz egiten dugu ikasleekin... Dena den, horiez gain, badira beste jarduerak batzuk ere, ‘Hizkuntzaren lehiaketa’ deitzen dena, adibidez, eta horietan gehiago sakontzen da euskara; hitzak ikasten dituzte, esamoldeak ezagutzen dituzte...” esan digu Lorainek. “Plan-gintza bat dugu, eta normalean horri jarraitzen diogu; goizean jardueraren bat dugu egunero, beste bat arratsaldean eta beste bat gauean. Gauza batzuk aldatu egiten dira, askotan eguraldiarengatik. Mendi irteera bat egin behar badugu eta euria egiten badu, beste zerbait egiten dugu egun horretan, eta jolasak ere aldatu egiten ditugu batzuetan, adinaren arabera”, jarraitu du.

Bost egunean aurrerapausoak

Asteazkenean, eguneko egun ikusten dituzte arduradunek ikasleek ematen dituzten aurrerapausoak euskarari dagokionez. Horiek neurtzeko, ebaluazioa egiten dutela esan digu Beñatek: “Aurrerapena izan den baino gehiago, haiek zer moduz pasa duten jakiteko egiten dugu ebaluazioa, eta euskara ikasteko eta erabiltzeko gogo handitu ote zaien ikusteko. Aurrerapena guk ikusten dugu eguneko egun”. Astelehenean, lehen egunean, ebaluazio bat egiten dute, ikasleak nola ikusi dituzten eta zer maila duten jasotzeko. Ostiralean, azken egunean, berriro egiten dute ebaluazioa, hasieratik amaierara izan den garapena aztertzeko. Lau ataletan banatzen dute ebaluazioa: hasteko, euskararekiko zer jarra duten (positiboa edo negatiboa den), motibazioa, ezagutza eta erabilera. Iriberrek esan digu asteazkenean,

ko, normalean, aldaketa ikusten hasten dela. Dena den, neurtzea zaila da Loraineren ustez: “Batuetan azalpenak ematen ditugu, eta ez dakigu lotsagatik den edo hizkuntza ez dutelako menderatzen, ez dugu jakiten ulertu duten edo ez. Hala ere, normalean talde guztietan dago euskaraz nahiko ongi dakien norbait, eta, horrelakotan, hari galdetzeko esaten diegu, guri gaztelania hutsean ez entzuteko. Izan

ere, gaztelaniarik ez erabiltzen saiatzen gara, baina ezer ulertzen ez badute hitz batzuk sartzen ditugu. Askotan mimika bidez aritzen gara, poliki-poliki, sinonimoak erabilia...”.

Haurrak gustura bueltatzen dira etxera, eta horren erakusle da ondoren, udan, udalekuetara itzultzen direla. Hori pozgarria dela esan digu Lorainek, euskararekiko jarrera positiboa hartu dutela erakusten duelako.



Sukarrietako Eskola Saiakuntzarako Zentroa

Harreman dialogikoa eta irakaslearen jarrera ingurumen hezkuntzan



AITOR ALBIZU
SESZeko ZUZENDARI
PEDAGOGIKOA



AMAIA SARASUA
SESZeko IRAKASLEA

Harreman dialogikoaren garrantziari buruz eta ingurumen hezkuntzan irakasleak izan behar duen jarrerari buruz hitz egin digute Aitor Albizuk, Amaia Sarasuak eta SESZeko (Sukarrietako Eskola Saiakuntzarako Zentroa) Talde pedagogikoak¹ artikulu honetan. Harreman dialogikoa lantzeko zenbait proposamen egin dituzte.

Sukarrietako Eskola Saiakuntzarako Zentroan (SESZ - CEEP) Ingurumen Hezkuntza programak garatzen ditugu Bizkaiko ikastetxeetatik datozen ikasle taldeekin. "Ikerketa-ekintza"n egiten dugulan, hau da, geure praktikaren azterketan oinarritzen gara, proposamen metodologikoak garatzeko.

Azken 25 urtetan Ingurumen Hezkuntzaren hedapena ikusi dugu gure Hezkuntza Komunitatean. Hor ditugu adibide moduan Eskola Agenda 21 eta lehendik eskola askotan garatu izan diren

ingurumenaren aldeko programak. Baina hedapen horrekin batera, programa horien ZER? eta ZERTARAKO? galderei arreta jartzen bazaie ere, NOLA? galderei erreparatzeak ikasketa esanguratsua erraztuko luke, irakasle eta ikasleen arteko harremanaren beharrei eta ezaugarriei buruz gutxi hitz egin den arren.

Programa batek planteatzen dituen helburu pedagogikoekin aurrera egiteko hiru arlo horien arteko koherentzia berebizikoa dela kontuan izanik, artikulu honetan NOLA? horri buruz jardungo dugu. Horretarako Harreman Dialogikoa hartu dugu aztergai, izan ere, gure esku-hartzearen ezaugarri nagusietako bat da, eta eskoletatik datozen irakasleen iritziz deigarrienetakoa eta baloratuenetakoa, ikasleengan duen eraginagatik.

Gure gogoeta nagusia galdera honen inguruan kokatu dugu: Nola lantzen dugu komunikazio sinkronizatua eta progresiboa irakasleen eta ikasleen artean, curriculum a hizpide hartuta, irakaste ikaste prozesu emankorrako eta demokratikoago baten alde?

Abiapuntua honelako kezkek zehaztu dute:

- Komunikatzeko konpetentzia garatzen ari al gara? Ikasleei zabalitzen al diegu tarterik geure hitz-jarioaren zurrunbiloan?

- Nola ekidin "niri ez diezadala galde-tu" moduko eta ikasle askok galderak egiteko dituzten oztopoen ondorioz erakitako lubakia?

- Ikasleen aurretiazko ideiak ezagutzen al ditugu? Nola hautematen dugu Garapen Hurbileko Zonaldea? Ikasketa esanguratsua bultzatzen ari al gara?

- Berdinen arteko ikasketari zukurik ateratzen al diogu, ikasleek dituzten hainbat informazio eta bizipen gelakideen ar-

tean konpartitzeko aukerak emanez?

- Ingurumen Hezkuntzaren helburu nagusietako bat -parte-hartzea- garatzen al dugu gelan "praktikatuz"? Ikasleek argudiatzen, parekoei entzuten, ikuspegi kritikoa garatzen... gizarte eragile izaten ikasten al dute?

Zergatik Harreman Dialogikoa?

XX. mende hasieratik errusiar eskolak (Vyotsky, Leontiev, Luria...) pertsonen garapen ebolutibo eta ikasketak elkarrengaitan duten bi osagai direla zabaldu zuen, Garapen Hurbileko Zonaldea kontzeptu teorikoan oinarrituz. Bi garapen maila bereizten dituzte, lehenengoa Garapen Maila Erreala, "pertsona batek bere kabuz eta laguntzarik gabe egiteko gai den gauzen arabera definitzen dena" eta bigarrena, Garapen Maila Potentziala "pertsona batek gehiago dakien norbaiten laguntzaz egin ditzakeen gauzen arabera definitzen dena". Bi maila horien arteko tarteari "Garapen Hurbileko Zonaldea" deitzen diote (Vyotsky 1988)².

Garapen Maila Errealak iraganera begiratzen duen bitartean, Garapen Hurbileko Zonaldeak etorkizunera begiratzen du eta arreta nagusia honetan jartzen du: pertsona batek ikasteko gertu dagoen horretara heltzeko beharrezkoa izango duen instrukzio egokian. Instrukzio hori eskola munduan irakasleen edo gehiago dakiten ikasleen eskutik etorriko da eta ondoren pertsonaren garapena subjektu-objektu eta bitartekariaren artean sortutako hirukiak baldintzatuko du.

Eta nola garatu beharko da instrukzioa bitartekaritzaren funtzioa beteko duela bermatzeko? Argi dago harreman dialogikoak soilik ahalbidetuko duela aipaturiko bitartekari funtzioa.

Zertarako Harreman Dialogikoa?

60ko hamarkadan Freirek³ hezkuntzarako ikuspegi dialogikoa garatu zuen printzipio batzuk zehaztuz. Horien artean horizontaltasunak hartzen du garrantzia, ikasleek irakaslearekin batera beren ikasketa prozesuan burutuko dituzten helburu eta ekintzen formulazioan izan behar duten paper aktiboa azpimarratuz. Ikasketa dialogikoa, ikasketa esanguratsuen elementu positiboak kontuan hartuz, haratago doa ekintza bateratu, adostu eta solidarioaren bitartez ikuspegi globala eta soziala jasotzen dituelako. Era horre-

tan, ikasketa prozesua, aldaketa prozesu bihurtzen da razionalitate komunikatibotik eraldaketa indibidual eta kolektibora doana bat eginez, Ingurumen Hezkuntzaren xede nagusiarekin (Maria Novo, 1998)⁴.

Nola? Irakaslearen funtzioa, papera eta jarrera

Hortik ondorioztatzen da irakaslearen bitartekari funtzioa ondo zehaztua izateak duen garrantzia. Jakina, funtzio hori betetzeak hainbat paper jokatzera eramango du, fase bakoitzaren helburuen, taldekatzeen, tresnen, baldintzen, intentzioen... arabera.

Bestalde irakasleak elkarriketarako egoerak antolatu beharko ditu parte-hartzea errazteko eta hainbat motatako gal-

derak eta prozedurak zuzendu beharko ditu harreman dialogikoa bideratzeko.

Baina harreman dialogikoan erabateko eragina duen faktorea irakaslearen jarrera da. Horizontaltasunak irakasleok ikasleekiko jarrera hurbila, irekia, zabalak, ikasleengan konfiantza adierazten duena, positiboa, aurreiritzi gutxikoa, umoretsua, sentsibilitatez hornitua, paternalismorik gabea, errespetuzkoa... izatea exijitzen du.

Hainbat saioetan emandako elkarriketaren erregistro idatziak eta lankideek zein kanpoko irakasleek egindako behaketasistematikoetan oinarrituz, elementu horiek sailkatu ditugu. Hurrengo taulan agertzen dira irakaste-ikaste prozesuaren faseen inguruan antolatuta (SESZ/Sukarrieta Taldea, 2002)⁵.

AURRETIAZKO IDEIAK

Irakaslearen papera: Ikertzailea- Diseinatzailea

Galdera motak:

- Diagnostika: Irekiak eta zehatzak. **Prozedura:** Bakarkako fitxak
- Prognosa: Zabalak. **Prozedura:** Kontzeptu Mapa talde osoarekin

PLANIFIKAZIOA

Irakaslearen papera: Gidaria-Negoizatzzailea-Bateratzzailea

Galdera motak:

- Irekiak, zehatzak eta kateatuak: Gutxieneko helburuak ziurtatzeko
- Galdera gakoak: Gaia bideratzeko edo kokatzeko (testuingurua)
- Zabalak: Beren nahietatik, jakin-minetik, usteetatik parte har dezaten, elkartzeko bideak jarri

Prozedura: *Gowin V, hipotesien formulazioa eta galdetegiak talde osoarekin. *Azpimarratzekoa da Gowin V-aren potentzialitatea harreman dialogikoa sustatzeko. Teknika heuristikoa den heinean, pentsamendu dibergenteari eta ezustekoei lekua eginez, akordioaren beharra nabarmendu eta adostasuna bultzatzen du.

Hiru galdera motentzat jolas eremua zabaltzen du.

EKINTZA

Irakaslearen papera: Dinamizatzailea

Galdera motak:

- Itxiak: Planifikatutako helburuak birgogoratzeko eta gu geu ikasleen irudikapen mentalaz jabetzeko (egia ala gezurra)
- Zehatzak: Datuak biltzeko, behaketa zuzenaren ondoren erantzutekoak.
- Komentarioak: Kuriositatea-emozioa- ezustekoa- aurkikuntzak- jakin-mina piztu, suspertu eta adierazteko aukera libreak eskaintzen dituztenak.
- Zabalak: Egindako lanean izandako zalantzak, ezusteak, oztopoak, egoerak eta elementu deigarriak adierazteko.

Prozedura: Azpialdeetan eta bikoteka.

HAUSNARKETA

Irakaslearen papera: Katalizatzaile- Kitzikatzaile

Galdera motak:

- Irekiak, zehatzak eta kateatuak: egindakoa era antolatuan jasotzeko
- Galdera gakoak: Gaia bideratzeko edo kokatzeko
- Zabalak: Planifikatu gabe suertatutakoak jasotzeko
- Ikasle guztiek erantzun ditzaketen batzuk eta gaia sakontzeko balio duten beste batzuk: taldearen aniztasuna kontutan izanik guztien parte-hartzea ahalbideatzeko eta guztien garapen hurbileko zonaldean mugitzen saiatzeko
- Pizgarriak: Hausnarketa bultzatzeko, hainbat iritzi azalarazteko eta argudioen bitartez eztabaidak bideratzeko

Prozedura: Edukien Sarea talde osoarekin.

Fase hau indartzeko, sarritan, Dilemak eta Simulazio Jolasak ere egiten dira.

KOMUNIKAZIOA

Programa amaitzeko ikasleek kanpaina antolatzen dute prozesuan zehar ikasitakoa beste taldeetako ikasleei azaltzeko, eta Ingurumenaren alde euren proposamenak aurrera eramaten anima daitezten.

Irakaslearen papera: aurreko faseetan aipaturiko guztiak batzen dira


Galdera motak eta prozedura: Gure esku-hartzearen bidez ideiak argi adieraztea, sintesia, argudiatzea, komunikaziorako hainbat estrategien erabilpena (gidoiak, marrazkiak, kantak, antzerkiak, power pointak ...) bultzatzen ditugu, beti ere ikasleen konpetentzia komunikatiboa garatzeko.

Talde osoan, azpialdetan eta bakarka lantzen dugu.

Jarraian, ikasle taldearen eta irakaslearen arteko elkarrizketa zati bat jaso dugu eta horren ondorioz, Gowin-en V-aren arabera burutu-tako planifikazioa. Adibidea *Basoa Lan Proiektuko* saio bati dagokio (SESZ, 2006)⁷.

<p>Zer egingo dugu gaur?</p> <ul style="list-style-type: none"> -Basoa hurbiletik aztertu -Hori, nola egiten da? -Basora joan -Beste zerbait gehiago? -Landareak aztertu -Basoko animaliak aztertu -Lurra aztertu -Ura aztertu..... -Zuhaitzak aztertu -Hori landareetan sartzen da -Belarra ikusi -Hori ere landareetan sartzen da -Zuhaitz motak ikusi -Zerbait gehiago egingo dugu? -Hori lan handia da. Nahikoa 	<p>Nola egingo dugu?</p> <ul style="list-style-type: none"> -Oinez -Ondo begiratu -Orientatu -.....Nola egiten da hori? -Arretaz begiratu -Gure aldetik zer ipiniz? -Begiak -Usaimena -Zer gehiago? -Bilatzen -Zer bilatzen? Zer bilatu beharko dugu? -Basoa, basoko gauzak 	<p>Hori dena zertarako?</p> <ul style="list-style-type: none"> -Basoko gauzak ikasteko -...Zertarako nahi duzue ikasi? -Gauza garrantzitsuak direlako -Zergatik? -Basora goazenean ez galtzeko eta besteei kontatzeko -Zer kontatu besteei -Nolako den basoa -Zuri interesatzen al zaizu basoa nolako den jakitea? -Bai -Zergatik? -Ez dakit -Zenbat denbora beharko dugu hori guztia bertetzeko? - (Denetarik entzuten da. Bazkalordura arte dugun denbora zehazten dugu)
---	--	--

BASO GUZTIAK BERDINAK AL DIRA?



Irakaslearen autoebaluazioa eta autoerregulazioa

Azkenik, geure interbentzioaren autoerregulaziorako diseinatzen/frogatzen ari garen ebaluazio tresna moduan jasota ditugun galderen artean harreman dialogikoarekin lotura zuzena duten batzuk aurkeztuko ditugu.

Galdera horien inguruan hausnartzeak irakaste-ikaste prozesuan zehar zailtasunak identifikatzen, aurrerapenak ikusten, hutsuneak nabarmentzen... laguntzen digu, hau da, geure praktikan harreman dialogikoaren hobekuntzarako joratu behar ditugun bideak argitzen.

Hona hemen harreman dialogikoan gure esku-hartzea autoerregulatzeko galdera batzuk:

- Ikasle guztien garapen hurbileko zonalderaino iristen diren galderak egiten saiatu al naiz?
- Erabilitako galderak integratzaileak izan al dira, erantzungo dituztenei konfiantza adieraziz?
- Erantzunak pentsatzeko, adierazteko, argudiatzeko... denbora egokia eman al dut?

- Haien iritzien, zalantzen, kezken eta bizipenen adierazpena ahalbideratu al dut?

- Erantzun "ez zuzenak" ere jaso al ditur erantzun egokiagoetara iristeko?

- Hainbat ideari eta desadostasunei aukerarik zabaldu al diet gatazkak kudeatuz?

- Ikasleen arteko parte-hartze ponderatua sustatu al dut, txandak errespetaraziz, norberaren iritzia adieraztearen garrantzia eta bestei adi entzutearena azpimarratuz?

- Kontutan izan al ditut ikasle guztien aurretiazko ideiak programazioaren diseinuan?

- Planifikazioan, asmoetan, arautan... jaso dudana, taldean adostutakoa izan al da?

- Ekintzak burutzerakoan egin dutena taldean komunikatzea bultzatu al dut?

- Sarea osatzerakoan loturen arteko progresioa bultzatu al dut galderen bitartez?

- Ikasleak euren hausnarketak sakontzeko kitzikatu al ditut, gaiak birformulatzeko aukera emanez?

Bestalde, ikasleek euren autoerregulazioa sustatzeko galderak izango dituzte: Iritziak bota al ditut? Nolako oztopoak aurkitu ditut ikasterakoan? Zerk lagundu dit ikasten?...

Amaitzeko, Sukarrietako Eskola Saia-kuntzarako Zentrotik irakasleak hain konplexua dirudien arren, hain aberatsa eta pozgarria den era horretan aritzera animatu nahi ditugu, beti ere ikastetxearen testuingurutik eta norberaren praktikaaren hausnarketatik abiatuz.

¹ SESZko Talde Pedagogikoa: Albizu A., Amezaga B., Angulo M.J., Basterretxea G., Bastida S., Bazaco I., Berasaluze G., Betanzos M.V., Bidaguren I., Bilbao T., Kortazar I., Elguezabal L., Iturbe J., Malaxetxebarria M., Pascual I., Sarasua A., Zea-rra A.

² Vygotsky, L.: El desarrollo de los Procesos Psicológicos Superiores. Ed. Grijalbo. México. 1988

³ <http://paulofreire.ufpb.br/paulofreire/index.html>

⁴ Novo, M.: La educación ambiental. Bases éticas, conceptuales y metodológicas. Universitas. Madrid. 1998.

⁵ Faseen deskribapena ikus SESZ/ Sukarrieta Taldea. Ebaluazio eredu bat aniztasunari ekiteko. Hik Hasi, 78. 2002.

⁶ Horri buruz gehiago jakiteko, SESZ. Aurretiazko ideiak eta ingurugiro-heziketa. BBK-Eusko Jaurlaritza. Bilbo. 1997

⁷ Elkarrizketa zati gehiago aztertu nahi izanez gero ikus SESZ. Hezkuntza-programa eta ebaluazio hezitzaile eredu. Autoerregulazioa irakaste-ikaste prozesuan. BBK- Eusko Jaurlaritza. Bilbo. 2007

AMA JAINKOSA

EUSKAL MITOLOGIATIK INTERPRETATUA

Andrés Ortiz-Osés



30.000 urtetan zehar, hala Eurasia nola Mediterraneoko kostaldean garatutako Ama Jainkosaren esanahi mitikoak eta erritualak ikertzen ditu liburu honetan Ortiz-Osés hermeneuta ospetsuak. Aurrekoan oinarrituta, ondoren, Mariaren azpian datzan eredu teluriko-panteista jartzen du agerian, eta horretarako "indar" eta "adur" hitzen oinarritzko analisi semantikoan murgiltzen da.

Gizarte-harremanak egoki ulertzeko oinarritzko liburu hau. Komunismo primitiboa, jabetza pribatuaren sorrera, patriarkatuak matriarkalismoa menderatzea, estatuaren eraikuntza, gerren logika, aurrerakuntza teknologikoen helburuak, industrializazioaren bultzagileak, klaseen arteko borrokak, globalizazio ekonomikoa, lehertze demografikoa eta pobrezia, immigrazio itzelak, sareetako kapitalismoa, lehegailu atomikoak, baliabideen murriztapenak... eta, kaos horren barnean, herri txikien identitatearen iraupenerako arazo larriak aztertu ditu Mikel Urkolak liburu bikain honetan.



**ZURE LIBURUDENDAN
SALGAI!**

Aurkitzen ez badituzu, eskatu gure web orrian:

www.gaiak.net

NANCY CHACON ARTEAGA

“Balioek eta moralak arreta berezia eskatzen dute pertsonen prestakuntza prozesuetan”

Ikasleak balioen gainean heztea ezinbestekoa da Nancy Chacón kubatarraren ustez. Eta ez du zaila ikusten, izan ere, bere iritziz, leku guztietan daude balioen aldeko lana egiteko prest dauden komunitateak. Habanan egoitza duen “Centro de Estudios Marianos” izeneko zentroan egiten du lan Chacón-ek, horren helburua Jose Martí-ren bizitza, lanak eta pentsamenduaren gaineko ikerketa eta zabalpena egitea da, eta Martíren pentsakeran oinarritzen dute haiek ere beren lana. Etika Katedrako presidentea da Chacón; Etika Aplikatuko Katedra hezkuntzako profesionalekin aritzen da eta lan pedagogikoa egiten dute. Kubako irakasleek Jose Martíren lanen azterketa sakona egiten dute eta hori balioak lantzeko eta ikasleen prestakuntza politiko eta ideologikoa garatzeko tresna gisa erabiltzen dute. Mundu hobea lor daitekeela aldarrikatzen du Chacón-ek eta XXI. mendean sozialismorako bidea egin daitekeela birkolonizazio neoliberalaren alternatiba gisa. Horretarako ezinbestekoa da balioak lantzea, eta lanketa hori nola egiten duten azaldu digu.

Nancy Chacón Donostian izango da gurekin uztailaren 1, 2 eta 3ko Hik Hasi udako topaketetan.

Zer lan egiten duzue Etika Katedra Aplikatuaren proiektuaren baitan?

Proiektuak diziplinarteko izaera eta ikuspegi integratzailea du. Hori guztia ikuskera teoriko eta metodologiko dialektiko-materialistik, etiko-axiologikotik eta humanistik egiten dugu. Horien gainean gakoaren diren kontzeptuak landu ditugu eta baita heziketa moralari buruzko, baloreen sorkuntzari buruzko eta lan ideologikoari buruzko ikuskera ere, heziketa politikoaren oinarri gisa.

Etika da zuen lanaren oinarria. Zer eskain dezake etikak hezkuntzan?

Etikak, gure eguneroko bizitzan betetzen duen tokitik abiatuta, belaunaldi berriak hezteko oinarri teorikoak, metodologikoak eta praktikoak eskain diezazkiguke. Ikuspegi etikoa, axiologikoa (hau da, baloreen gainekoa) eta humanista eskaintzen digu eta horrek, ikuspegi integratzaileagoa izaten la-

guntzen digu. Izan ere, ikuskera horrek batez ere eduki filosofikoa eta soziologikoa duen arren, beste zientzia batzuekin (psikologiarekin esaterako) harremanetan jartzeko aukera ematen digu.

Etikak moralari buruzko ezagutza orokorrak eta zehatzak eskaintzen dizkigu, eskolako bizitza espiritual eta ideologikoaren zati garrantzitsua betetzen duen fenomeno sozial konplexu moduan, familia eta komunitatea kontuan hartuta. Eta morala, pertsonen barne munduaren, mundu subjektiboaren, oinarritzko zatia da; pertsonen harremanetan, komunikazioan, portaeretan... esku hartzen du. Pertsonak, era berean, heziketa prozesuan esku hartzen dute, hainbat eratarata, baina eskolako testuinguruan bat egiten dute eta harreman indibidual eta kolektiboaren sare konplexua osatzen dute guztiek; irakasleek, irakasleek, familiak, eskolako edo komunitateko langileek... Gero



eta behar handiagoa nabarmentzen da eskolaren, familiaren, gizartearen edota komunikabideen arteko komunikazioa egoteko... Koherentzia bilatu behar da eragile sozializatzaile guztien artean eta gurasoen eskolak, kirol jarduerak, parte-hartzea eta eskola komunitatearen bizitza hobetzeko balio duten ekimen guztiak egokiak dira gizartea hobetzeko. Hezitzaileak egiteko garrantzitsua du, beraz, bai eskolan duen lanarengatik, eta baita beste eragile sozializatzaileengan duen eraginarengatik ere.

Beraz, gizartearen moralak harreman berezia du eskolarekin, ikasleen heziketa morala nahita zuzentzen denean, morala eskolako giroaren eta hezkuntza prozesuaren zati delako.

Eta plano axiologikoak zer leku hartzen du?

Plano axiologikoak, zera uzten du agerian: morala ezin dugula ulertu ba-

lio moralak kontuan izan gabe. Balio moralek lotura dute pertsonen gainera-ko balioekin eta adierazpen ideologikoekin, eta gainera, balio moralak, balio unibertsalen eta pertsonalen sistemen oinarria dira, hau da, balio politikoei, aberriaren inguruko balioei, balio zibikoei, balio juridikoei, balio estetikoei, balio zientifikoei, ingurugiroaren gaineko balioei, familia mailako balioei edota balio erlijiosoei buruz ari gara. Horiek guztiak sistema objektibo batekin lotzen dira maila sozialean, baina eskolan ezarrita dauden balioekin ere lotura dute (plano subjektiboarekin, hau da, klase menderatzailearen interesei eta ideologiari erantzuten dieten balioekin).

Hori guztia jokabideetan, harremanetan, komunikazioetan edota sentimenduetan, agerian geratzen da. Plano horretan estuki loturik agertzen dira osagai psikologikoak, soziologikoak eta ideologikoak, balioetan eta nortasunaren eremu moralean.

Balio gizatiarrak indartzeko beharra dago: duintasuna, elkartasuna, ardura, errespetua, demokrazia, lana eta hiritarren formazioa indarkeria amaitu dadin... Eta batez ere, askatzailea izango den formazioa eskaini behar da. Eta balio horiek eredu eta praktikaren bidez adierazi behar dira, teoriak soilik ez baitu zentzu handirik.

Ikuspegi humanista ere aipatu duzu...

Humanismoa, gizakiaren ikuskera filosofiko eta ideologiko moduan ulertuta, bultzatzen dugun ikuspegi etikoa-ren eta axiologikoaren mailarik integratzaileena da. Morala eta balioak gizartearen eta pertsonen berezko konfigurazio gisa eta konfigurazio dinamiko gisa hartzen ditugu, baina pertsonak osotasun bakar eta errepikaezin gisa hartuta. Moralak eta balioek bizitza osoan zehar laguntzen diote pertsonari eta pertsonen prestakuntza prozesue-

tan (hasierako prestakuntzan edota etengabeko prestakuntzan) arreta berezia eskatzen dute. Humanismoaren ikuskera ideologiko horrek, gizakia bere ingurua eta bere burua aldatzeko gaitasun mugagabeen eramaile gisa hartzen du. Hori batez ere lanaren bidez lortzen da eta ezagutza teorikoak eta praktikoak eskatzen ditu, sentimendu onak, independentzia, sormena eta giza indarregan sinestea, hazteko, eta egunero eta gure bizitzaren une historiko bakoitzean, pertsona hobeak izateko.

Ezinbestekoa da irakasleen prestakuntza indartzea, ezagutza zientifikoa batez ere, eta baita ikuspegi integratzailearen, integratzailearen eta kultura orokorraren jabe izatea ere. Era berean, sentikorra, sortzailea eta ikertzailea izatea, eguneroko bizitzaren eta etorkizuna prestatzen lagun gaitzaketen balioak dira. Horregatik, egoera berrien eta arazoan aurrean praktika alternatiboak lantzea, partekatzea eta prestatzea behar-beharrezkoa da.

Pertsonengan, moralaren eta balioen garapena giza kontzientziaren eta autokontzientziaren bereizgarria da. Garapen hori hezkuntzaren adierazpena da eta pertsonen eta herrien kultura etikoa neurtzeko baliagarria da. Formula nagusia, gizakiak hobetzeko lan egitea eta mundu hobe lortzeko lan egitea da, hori guztia posible baita. Gizartea hobetzeko balioek lehentasuna izan behar dute.

Bide horretan, moralak eta balioek borondatearen erregulazioaren gaineko kontrola edo boterea dute, positiboa dena negatiboaren gainetik jartzeko eta izan ditzakegun gauza txarren gainetik, barnean dugun onena ateratzeko. Portaeran aldaketak maiz gertatzen direnean ikusiko da autoerregulazio horren adierazpena eta ez une jakinetan soilik; hori da heziketa moralaren oinarria eta pertsonak euren bizitzan zehar lortzen duten prestigioaren oinarria.

Ikuskera etiko, axiologiko eta humanistak, pedagogiara ekarrita, Vigotskyren ikuspegi zabalten du, hau

da, heziketa norbanakoaren eta bere testuinguru historiko eta sozialaren arteko elkarrekintza gisa ulertzearen ideia zabaltzen du, eta Egungo eta Gertuko Garapen Eremuaren gaitasunetan sakontzeko aukera ematen digu.

Arazoa, aldamioren eraikuntzan topatzen dugu. Autodeterminatutako norbanakoen eta egoki hezitako norbanakoen prestakuntzarako beharrezkoak diren laguntza mailatan topatzen dugu arazoa; hezkuntza prozesuaren baliabideak, bideak, metodoak, prozedurak eta norbanakoak giltzatzen diren gunean, hain zuzen ere. Ikuskera horretan, nortasunaren konfigurazioa egituratzen duten osagaiak duten elementu integratzailea ideologikoa da eta balioek zubi-lana egiten dute. Hezkuntza prozesuan, balioek, ikuspegi integratzaileei eta diziplinarteko ikuspegi atek irekitzen dizkiete.

Pedagogiak ikuspegi etikoa, axiologikoa eta humanista izateak, hezkuntzaren kalitatea hobetzen laguntzen al du, orduan?

Jakina. Uste dugu pedagogiak beharrezkoa duela ikuspegi etikoa, axiologikoa eta humanista hezkuntzaren kalitateak gora egin dezan; proiektuaren gakoa, irakasleen prestakuntza etengabearen ikuspegi integratzailetik abiatutako profesionaltasun pedagogikoaren ikuskera da.

Ikuspegi hau osatzen duten ideia marxisten eta martianoen kate-maila nagusiak hauek dira: moralaren eta bere heziketaren ikuspegi pedagogikoa, balioen formazioa heziketa moralaren oinarritzko osagai gisa eta gizakiek gizartearen baliorearen ikuskera. Gizakiek errealitatea eta euren burua gizatasunez aldatzeko gaitasuna dute.

Ikuspegi horretatik, etika, hasiera-ko eta etengabeko prestakuntzaren eta hezkuntza arloko ikerketaren ikuspegi holistikoa (errealitate bakoitza, errealitate hori osatzen duten zatien batuketaz bereizten den osotasun moduan ikusten da ikuspegi holistikotik) eta osoa eskaintzen duen hezkuntza zientzia bihurtzen da.

Zer ondorio izango ditu haurren gorputz hezkuntzako orduen murrizketak



Hezkuntza Sistemaren hainbat erreforma eta aldaketa ezagutu izan ditugu. Administrazio bakoitza, garaiko balio eta ikuspegiaren arabera bultzatu nahi duen gizarte eredua lantzeko aukeraz baliatu da. Oraingoan gainera (Euskal Autonomi Erkidegoko Curriculum delata eta), behingoz, geure kulturarekiko arrotzak ez diren edukiak joratzeko eskumena dugu.

Maiz entzun eta irakurri izan dugu Derrigorrezko Hezkuntza Sistemaren helburua belaunaldi berriak bizitzarako prestatzea dela, gizartean txertatzeko trebatzea, haien garapen soziopersonal osoa bermatzea; modu horretan, egungo gizartean ditugun aldeak gutxituz. LOGSE izeneko Hezkuntza Sistemaren Erreforma irizpide horiekin bat egiten saiatu zen neurri batean: integrazioari esker ikasle guztiak elkarrekin lankidetzan, ikasle bakoitzaren ezauzgarri eta beharretara egokitutako curriculum, haurra bere osotasunean ulertzea (adimen eta ezagutza intelektualeara soilik mugatu gabe), ordura arte gutxietsitako hainbat arloetan trebatutako irakasleak (musika, plastika, gorputz hezkuntza), irakasle laguntzaileak bermatzea, errendimenduari dagozkion emaitzak soilik ebaluatzen dituzten irizpideak baztertzea...

Eskolaren eraginak mugak ditu eta



Luix Mari ZULAIKA

EHUKO IRAKASLEA. PEDAGOGIAN DOKTOREA

ezin dugu gizarteak dituen arazo guztien erantzule bihurtu; hiritarrengan eragiten duten beste zenbait aldagai ezin ditzakegu baztertu. Tarteka, hainbat arazok, komunikabideetako lehen orrialdeak betetzen dituzte: genero indarkeria, arrazismoa, xenofobia eta etorkinekiko jarrera baztertzailak, bandalismo portaerak; *bullying*-a eta ki-deenganako erasoak eta jazarpenak, arazoak konpontzeko biolentziaren kulturak, bestela pentsatzen dutenene-kiko tolerantziarik eza, garapen jasangarria, klima aldaketa... Arazo horiei erantzuteko asmoz, neurri isolatu moduan, Unitate Didaktiko banasortu izan

da eta eskola guztietara banatu. Beraz, muinera jo beharrean eta egiturazko eraldaketak proposatu beharrean, adabakiak ezarri izan dira.

Zer islatzen dute arazo horiek guztiek? Ez ote dugu abiapuntu edo ikuspegi desegokia izango? Ez al ditugu hutsuneak zenbait eremu (afektibitatea, emozioak, baliabide sozialak, harremanak...) lantzerakoan? Ez al ditugu gehiegi lehenesten adimenarekin eta eremu kognitiboarekin lotutako edukiak, errendimendua eta bikaintasuna irizpide gisa hartuz? Ohartzen al gara oinarrizko hezkuntzak kohesio sozialean izan dezakeen eraginaz?

Egia esan, hemendik kanpo ere inboluzio garaiak bizi ditugu, etapa hori lan merkaturako prestaketa gisa ulertzen dugu eta irakasgaien artean hierarkiak ezartzen ditugu. Herrialde baten Hezkuntza Sistemaren kalitatea neurtzeko adierazle gisa zientzietako ikasketetan matrikulatutako ikasle kopurua erabiltzen hasi ez dira, bada! Beraz, badakizu, zure seme-alaben irakasleak arlo guztiak garrantzitsuak direla esaten badizu... ez egin kasurik!, hori zaharkitutako ideia besterik ez da eta, nonbait.

Baina egindako galderari jarraituz, hel diezaiozun Gorputz Hezkuntzaren arloari. Curriculum berrian, derrigo-

rezko ordu kopurua ia erdira jaitsi dute (% 40), astean saio bakar batera mugatuz. EAEko curriculumaren arabera, Gorputz Hezkuntzan jorratu beharko diren helburu eta gaitasunak irakurtzen baditugu, benetan garrantzitsuak direlaz ohartuko gara (EHAA 2007-11-13). Ez dugu uste inor horiek gutxiestera ausartuko denik. Baina norbaitek uste al du hain garrantzitsuak diren helburuak hain denbora gutxirekin lor daitezkeenik? Arloak duen garrantzi pedagogikoa aitortu eta gero, nolatan murriztu daiteke eskaintako denbora? Kontraesan hori argitzeko eta erabakiak zuzentzeko gogoetaren beharra sumatzen dugu. Ezer baino lehen, hezkuntza komunitateak (eta oro har gizarteak) ondo ezagutu beharko luke arlo horren bidez zer lantzen den, soilik gimnasia eta kirolarekin identifikatzen dituzten uste okerrak gaindituz.

Zertarako balio du, bada, Gorputz hezkuntzak?

Gorputz Hezkuntza irakasgaia berezia da besteen aldean. Ikasgelako aulkian eserita, geldirik, ordu luzeak pasatu ordez, espazio fisikoa eta zereginak goitik behera aldatzen dira. Bertan sortzen diren elkarrekintzek Hezkuntza Proiektuetan ezarritako zehar lerroak, balioak, jarrerak eta portaerak lantzeko aukera aparta eskaintzen digute.

Pedagogikoki hain aberatsak, baliagarriak eta hezitzaileak diren testuinguru eta nahita diseinatutako egoera gutxi lortuko ditugu: lankideen izerdiak elkartu eta konpartitu helburu bera lortzearen, interes pertsonalaren aurretik taldekoei lehentasuna eman, tranpa eginaz garaipena eskuratzeko aukera izan arren neure burua auto-kontrolatzea, emozioak puri-purian dauden unean aurkariak eta araudiak errespetatzeko gai izatea, norbere gorputza onartzea, besteekin komunikatzeko eta erlazionatzeko ditugun aukerak esperimintatzea, aisialdirako ohitura osasuntsuak bereganatzea, eskolaz kanpoko ordutegian burutuko ditugun hainbat jarduera ere euskararekin lotzea...

EAE n haurren % 32k gehiegizko pisua du eta % 14ek obesitatea. Joera gorantz doa, eta zenbaitentzat hori da XXI. mendeko izurritea. Haurrek mugimen-

du-jolasak baztertu dituzte, ez dira beren kabuz mugitzen eta elikadura ohitura gero eta kaskarragoak dituzte. Gizentasuna, gizarte modernoetako gaitasun gehien arrisku faktorea da eta joera sedentario horiei aurre egiteko haurtzarotik mugimenduaren kulturaren hezte beharrezkoa da. Konponbide gisa, Bruselako Parlamentuak Europako Batasuneko kide diren herrialde guztiei eskaera luzatu die: derrigorrezko hezkuntzan astero gutxienez hiru ordu berma ditzatela. Kontuan izan behar genuke, esate baterako Estatu frantziarrean, astero lau ordu eskaintzen dizkiotela gorputz hezkuntzari. Nola uler daiteke hemen aurkako joera hartzea?

Baina aspaldian nagusitzen ari den irizpide neoliberaletan oinarrituta ere, Gorputz Hezkuntzaren aldeko argudioak topa ditzakegu:

Zenbait azterketek irizpide ekonomikoetan oinarriturik, jarduera fisikoaren sustapenean dirua inbertitzea errentagarria dela erakutsi dute. Hau da, hiritarrek kirola egin dezaten bideratutako euro bakoitzeko, hurrengo 25 urtetan 50 euro aurreztuko lirarteke sedentarisismoaren ondorioz sortuko lirartekeen gaixotasunei erantzun beharrik egongo ez litzatekeelako.

Bestalde, hainbat ikerketek frogatu dute jarduera fisikoa neurri egokian egiteak errendimendu akademikoa hobetzen laguntzen duela. Izan ere, lasaitu eta gero, arreta handiagoz ikasteko ahalmena dugu eta autokonfiantza, motibazioa, espektatibak eta kemena areagotzen dira.

Zergatik murriztu nahi dute?

Irakasgai batzuen ordutegi murrizketak PISA txostenean omen du jatorria. Derrigorrezko Hezkuntzako etapen amaieran herrialde bakoitzean eskuratzen duten maila neurtu dute. Hainbat herrialderen sailkapena eratu da, baina sailkapen horretan postu batzuk aurreratu nahi izateak ez gintuzke itsutu behar eta ez genuke iparra galdu behar. Lehentasunak berbideratzeko, aurretik Oinarritzko Curriculum Diseinua eta Hezkuntza Proiektuak aldatu beharko genituzke, koherentziari eusteko.

Ordutegi murrizketa justifikatzeko

Zergatik kendu zaizkio orduak arlo horri eta ez beste bati? Zergatik dira irakasgai batzuk ezinbesteko? Zergatik ez da orduen banaketa eskolaren esku uzten?



ikasleek eskola orduz kanpo kirola eginguten dutela aipatu dute. Baina ikasle guztiek ez dute horrelakorik egiten eta gainera, Gorputz Hezkuntzako arlo kirola baino zerbait gehiago da; akatsa litzateke bi jarduera horiek identifikatzea. Eskola-orduetan jarduera motorren bidez hezte da helburua, (eta ez alderantziz, keinu tekniko batzuk irakastera mugatu). Kirola ez diren eduki ugari erabiltzen dira horretarako. Bestalde, atentzioa ematen digu hemengo administrazioa ez dela eskola kirolaren finantziaketan inplikatu eta orain, funtzio hezitzailea onartzen diola entzuten dugu. Norbaiti burura al dakioko inglesa curriculumetik ezabatzea ikasle asko beren kabuz akademiatarajoaten direla argudiatuz?

Aldi berean, esan dute, orain arteko ordutegiari eustea ez dutela debekatu eta horretarako legean zirrikitua utzi dutela: bost ordu astero, eskola bakoitzak nola banatu aukera dezan. Baina zergatik kendu zaizkio orduak arlo horri eta ez beste bati? Zergatik dira irakasgai batzuk soilik ezinbesteko?

Erabaki desegokiak berbideratzeko garaiz gaude; gure haurren, gazteen eta belaunaldi berrien etorkizunak hainbeste merezi du. Kontuan har ditzagun haien heziketa, osasuna eta garapena pertsona gisa (ez lan-merkatu-rako lehengai gisa soilik). Azterketa korporatibista eta interes endogamikoak gaindituz, Oinarritzko Hezkuntzaren xedearen gaineko eztabaida egin beharko genuke, Euskal Herriko gazteria nola prestatu nahiko genukeen argituz.

hik hasi

21.
monografikoa

Bizikidetza lantzen heziguneetan

Blanca Kerejeta eta Amaia Agirre



Amaia AGIRRE psikologoak eta **Blanca KEREJETA** irakasleak gero eta anitzagoa den jendartean elkarbizitza errazteko bitartekoak eskaintzen dizkigute.

Monografiko honetan, Hik Hasiko 2005, 2006 eta 2007ko Udako Topaketetan "Harremanak gelan" eta "Txokoa, negoziaketa eta bitartekaritza" izenburupean landutako ikastaroetan eskainitako edukien nondik-norakoak dituzue.

Bide eginean jarraitzen dugu zuen
ekarpenekin eta parte-hartze
handiagoarekin aberastu nahi dugularik.



Hik Hasi proiektua irekia
den heinean, interesa duen edonoren
parte-hartzea gustu handiz hartzen dugu.

Jar ezazu zure aletxoa euskal
hezkuntzaren
aldeko ekimen honetan.

maiatza

berriak

Konpetentzietan oinarritutako hezkuntzari begira

Iaz zabalduko ildoari jarraituz, XV. Jardunaldi pedagogikoak egin zituzten Gasteizen apirilaren 22, 23 eta 24an Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioak antolatuta “Konpetentzietan oinarritutako hezkuntza” izenburupean. Euskal curriculumak, konpetentea izan dadin, izan behar dituen ezaugarriak aztertu zituzten hainbat adituk hiru egunetan zehar.

Europar testuinguruan azken urteotan hezkuntzak hartu duen nondik norakoari begiratuta, Euskal Curriculumaren diseinu propioa egiten jardundu Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioak, beste eskola-eragile batzuekin batera, eta hezkuntza-konpetentziak hartu ditu oinarri moduan. Horren harira, marko kontzeptuala, kokatze teория eta gogoetarako gakoak izan zituzten hizpide eta irakasleei dimentsio partikularrak behatzeko eta horiek alderatzeko aukerak eman nahi izan zizkieten.

Euskal Herriko hizlariez gain, Xavier Roegiers eta Alexia Peyser Belgika-

ko Lovaina-Berriko unibertsitateko irakasleak izan ziren Gasteizen eta baita Carles Monereo Bartzelonako Unibertsitateko psikologia irakaslea ere, besteak beste. Euskal Herriko zenbait ikastolatan egindako esperientziak ezagutzeko aukera ere izan zen.

Iaz, konpetentzietan oinarritutako Hezkuntzari zegokion lehen urratsa egin zuten ikastolek, “Elkarrekin bizitzeko” eta “Komunikatzen ikasten” konpetentzien inguruko gogoetaren bidez, eta aurten, horri jarraipena eman nahi izan diote.



Ez Dok-Badok Amairu Oñatin

Oñatiko Elkar Hezi ikastolak, *Ez Dok-Badok amairu* jardunaldiak garatu ditu apirilean zehar. Garaiko musikariak herrira gonbidatuz, ikasleei eta herritarrei mugimenduaren berri ematea izan da eskolaren asmo nagusia.

Apirilaren 17an eta 18an, Pantxoa eta Peio, Manex Pagola, Benito Lertxundi, Oskarbi eta Pako Aristi izan ziren bertan. Hilaren 24an, ostera, Nestor Basterretxearekin *Amalur* filma ikusteko parada izan zen eta jardunaldiak amaitzeko Joxe Mari Iriondo eta Peio Zabala hurbildu ziren.

Ikasleak ekimenak antolatzen inplikatu nahi izan dituzte eta haiek ibili dira aurkezpen lanak egiten, mahai-inguruetan parte hartzen edota aktak ja-

sotzen. Jardunaldiak herrian egin dira, eskola herrira zabaltzeko xedez. Era

berean ikasleak, egitasmoak, ikasleak herrigintzan murgildu nahi izan ditu.



Maiatzaren 18an, Bultza euskal hezkuntza!

Kalitatezko euskal eskola publikoa aldarrikatuko dute maiatzaren 18an Iruñeara hurbiltzen direnek. Aurten, Sortzen-Ikasbatuaz elkarteak urteroko nazio festaren XIII. edizioa egingo du, euskararen eta euskal kulturaren oinarritzen den hezkuntzaren alde eginez.

Urtero lez, Iruñeako Takonera parkean egingo da euskal eskola publikoaren aldeko jai eta horretarako antolatuta lanetan buru belarri ibili dira Biurdana institutuko arduradunak, irakasleak, ikasleak eta gurasoak. Sortzen-Ikasbatuazeko kideek esan dutenez, Takoneran burutuko den festa euskaraz aritzen diren ikastetxe publikoen bilgune bihurtu nahi dute eta Euskal Herri osoko euskaltzaleei egin nahi diete bertan parte hartzeko gonbita. Horretarako egitarau alai eta oparoa antolatu dute, "euskararengatik eta euskararen alde" egiteko.

Jaiaren helburua hau da antolatzaileen esanetan: "euskaltzale guztien ekarpena biltzea, gure seme-alaben heziketarako baldintzak hobetzeko lan egiten jarraitzeko". Horren bitartez hainbat proiektu bideratu nahi dituzte, hala nola, Euskaraz Mintza (euskara sendotzeko), guraso eskolak, eskolaz kanpoko jarduerak egiteko hitzarmenak (Aixe Aixialdia), Etorkinak eskolan materiala, Kimuberri eta abar.

Aurten lehen aldiz Bigarren Hezkuntzako ikastetxe baten ardura izan da festa antolatzea, eta arropa ere bertako gurasoek diseinatu eta antolatu dute.

Abestia, O-XBAND taldeak egin du eta abestiaren muinak jaiaren leloarekin bat egingo du, "Euskara bai, hezkuntza ere bai, BULTZA euskal hezkuntza Euskal Herri osoan".

Antoniutin


Dantzak, Pirritx eta Porrotx, herri kirolak, herri bazkaria, Kiki eta Mokoren antzerkia, gaztelu puzgarriak...

Takoneran

Inaugurazioa, luntxa, graffiti erakusketa... Egunean zehar, tailerrak, ludoteka, tonbola, artisauak, rokodromoa, txalaparta...

Vistabellan

Zabaldi abesbatza, Fermin Valencia, Aitor Ikastola, Kontzertuak: suntsiketa, hesian, O-X Band...



Hezkuntza Berritzatzeko Proiektuei buruzko Gipuzkoako VII. Jardunaldiak

Jende ugari hurbildu zen apirilaren 17an eta 18an Donostiako Miramar jauregira, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, Gipuzkoako Berritzeguneen bitartez antolatutako Hezkuntza Berritzatzeko Proiektuei buruzko Gipuzkoako VII. Jardunaldietara. Aurtengo gai nagusia "Gaitasunak garatzen" izan da eta horretarako, besteak beste, bertan izan da Elena Martin Madrilgo Unibertsitate Complutenseko irakaslea *ikasten ikasteko* kompetentziaren inguruan mintzatzen. Programan, oinarritzko konpententzien garapenerako hainbat gune landu dira, hala nola, zientzia eremuetako konpententziak, hizkuntza eta komunikazio gaitasunak, gizarte eta kultur aniztasunerako gaitasunak, kalitatea edo IKTak. Makina bat esperientzia ezagutzeko parada izan da.



Getxolinguae, entzun eta berba egin

Getxoko berritzeguneak "Getxolinguae" jardunaldiak antolatu ditu zortzigarrenaldiz, maiatzaren 14an eta 15ean. Aurtengo jaia, "Entzun, berba egin eta berbetan jardun" izango da eta helburua irakasleen artean gogoeta bultzatzea da.

Hitzaldien gaiak hauek izango dira: elkarriketa nola gauzatu eremu formalean eta ez formalean, interakzio prozesuak ikasgelan, irakasleek komunikazioa bideratzeko erabiltzen dituzten estrategiak eta ahozko hizkuntzak, tesuinguru jakinetan ez ahozkoak diren elementuez laguntzea... Hainbat esperientzien eta praktika onen azalpenak ere tartekatuko dira.

Algortako Igeretxe Hotelean izango dira jardunaldiak. www.getxolinguae.net web gunean duzue informazio gehiago.

Maiatzak 14

8.45 Material banaketa

9.15 Aurkezpena

9.30 Montserrat Vilá

"Ulermen prozesuak ikasgelan" (G)

12.00 Maite Goñi

"Euskaljakintza: klik eta mintza, horretan gabiltza" (E)

15.30

A - aretoa: Joserra Gartzia

"Zer da eskolan ahozkotasuna lantzea?" (E)

B - aretoa: Jennifer Wilson

"Ikasle gazteentzako hurbilpen komunikatiboa" (I)

17.00 Iñaki Arruti

"Ikasleen hizkuntzak eta gelaz kanpoko jarduerak" (E)

Maiatzak 15

9.30 Amparo Tusón

"Kortesia-azko hizketa estrategiak ikasgelan: afektuaren eta distantziaren artean" (I)

12.00

A - aretoa: Virginia Unamuno

"Ikasgelako hizketa, ikasgelan hizketa" (G)

B - aretoa: Teresa Morell

"Ahozkotasuna: hizkuntzen irakaskuntza eta ikaskuntza eraginkorren balioa" (I)

15.30 Julian Beloki "Esaidazu arren"

"Eguneroko eginkizun-harremanetan elkar ulertzeko bideak" (E)

16.30 Mahai-ingurua eta amaiera ekitaldia
Moderatzailea: Julian Beloki.

Kosmodisea, ekiten ikasiz

Kosmodisea, ekintzailetasuna eta kultura digitala sustatzen dituen proiektua da, eta aurren, bigarren ikasturtez, hainbat ikastetxek hartu dute parte bertan. Gipuzkoako Foru Aldundiaren Berrikuntzarako eta Jakintzaren Gizarterako Departamentuaren ekimena da eta apirilaren 25ean, parte-hartzaile orori esker ona adierazteko ekitaldi berezia egin zuten Donostiako Kurasaalean.

Kosmodisearen helburua, talde-lanean zenbait proiektu garatzeko hainbat trebetasun eta balio lantzea da, IKTak jorratuz. Aurtengo irabazleak, Basakaitz Herri Ikastetxea (Aizarnazabal), Elgoibar Ikastola, San Vicente de Paul (Irun), La Salle Berrozpe (Andoain) eta Nazaret Zentroa (Donostia) ikastetxeak izan dira.

Ikastaroak

* **"Irakasle euskaldun eleanitzak sortzen. Urrats bat aurrera"** jardunaldiak

Noiz: Maiatzak 8, 9:30-14:00. **Non:** Bilbon, Deustuko Unibertsitatearen auditorioan. **Informazio gehiago:** <http://www.kontseilua.org>. **Izen emateko:** kontseilua@kontseilua.org

* **Psikomotrizitatea 0-2 (Haurreskolak 07/08)**

Noiz: Maiatzak 14-28, astelehen eta asteazkenetan, 17:00-20:00. **Non:** Donostian. **Emaitza:** Juanjo Kintela. **Informazio gehiago:** <http://www.haurreskolak.net/>

* **Haur eskola eta familiaren arteko harremana (Haurreskolak 07/08)**

Noiz: Maiatzak 13-27 astearte eta ostegunetan, 17:00-20:00. **Non:** Donostian, Zubiri BHI, JM Barandiaran 10-12. **Emaitza:** Zaldua Arnedo. **Informazio gehiago:** <http://www.haurreskolak.net/>

* **Kanta dezagun! (Garatu 07/08)**


Noiz: Maiatzak 27- Ekainak 12, astearte eta ostegunetan, 17:30-20:00. **Non:** Eibarren, markeskoa jauretxean, Otaola hiribidea 1. **Emaitza:** Itsaso Arrieta **Informazio gehiago:** <http://www.ueu.org>

argitalpenak



Kafka eta panpina bidaiaria
Juan Kruz Igerabide
ELKAR

Franz Kafkak, hil baino urtebete lehenago, Berlingo Steglitz parkean paseoan zebilela, panpina galdu berri zuelako negarrez ari zen neskatila aurkitu zuen. Haurra lasaitzeko, panpina ez zela galdu esan zion, bidaia bat egitera joana zela eta laster gutun bat jaso zuela... 10 urtetik gorako haurrentzako liburua da. Irudiak Elena Odriozolak egin ditu •




Irrikoa aldizkaria
1. zenbakia
ELHUYAR, EHU ETA EUSKO JAURLARITZA

EHUk, Eusko Jaurlaritzaren, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko Foru Diputazioen eta Elhuyar Fundazioaren laguntzarekin sortutako ZIO proiektuaren barnean kaleratu dute Irrikoa aldizkariaren lehen alea. DBHko 3. eta 4. mailako eta Batxilergoko ikasleentzat zientzia dibulgazio aldizkaria da eta jakintza eta ikerketarekiko jakin-mina piztea da helburua •



Gaindegiaren 2007ko txostena
GAINDEGIA

Gaindegiak, Euskal Herriko ekonomia eta gizarte garapenerako behategiak, 2007ko txostena kaleratu du. Izenak berak dioen moduan, Euskal Herriko ekonomia eta gizarte garapenerako datuak jaso dituzte argitalpen berri honetan, 2007 urteari dagozkion datuak, hain zuzen ere. Euskaraz eta ingelesez kaleratu dute txostena. www.gaindegia.org web gunean duzue informazio gehiago •




Ama Jainkosa
Andrés Ortiz-Osés
GAIK

30.000 urtetan zehar, bai Eurasia eta bai Mediterraneoan kostaldean garatutako Ama Jainkosaren esanahi mitikoak eta erritualak ikertu ditu liburuan Ortiz-Osés hermeneuta ospetsuak. Aurrekoan oinarrituta, ondoren, Mariaren azpian datzan eredu teluriko-panteista jarri du agerian, eta horretarako "indar" eta "adur" hitzen oinarritzko analisi semantikoan murgildu da •



Xabiroi
10. zenbakia
EUSKAL HERRIKO IKASTOLEN KONFEDERAZIOA

Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioak argitaratzen duen Xabiroi komikiak abentura berriak dakartza ale honetan: Haizea, "M" arrotza, Haratago, Hor konpost, Einstein inspektorea: heuxkaltzaina, Mutila eta botila, KomikiTAUN, Mudwogs: haurtxoa hezten eta Arranotxu komikiak irakurri eta gozatu ahal izango dituzte irakurleek •



Tantak aldizkaria
38. zenbakia
EHU

Ale berriko artikulua hauek dira: "Testuliburu eta edukiaren eta itxuraren garapena: Anaya, Edebé eta Santillna argitaletxeak adibide", "II Errepublika Bilbon: Lehen Hezkuntzaren birmoldaketa eta lehenengo hastapenak (1031-1932)", "Hizkuntzen Portfolioa ataritika gisara", "Psikopedagogoaren profil profesionalaren inguruko ekarpenak", "Arte Hezkuntza utopiaren eta pragmatismoaren artean" eta "Bizikidetzak ikastetxeetan" •

... nora joango gara?

TROKA ABENTURA Natura eta abentura edonoren esku

Alpeetan bururatu zitzaien ideia Jabier Fuertesi eta beste lagun bati. Pentsatu zuten, akaso, polita izango zela Euskal Herrian, Bizkaian, abentura eta kirol jarduerak lantzeko guneren bat sortzea. Alpeetatik Bilbora, eta, ondoren, Kantauri itsasertzera bidaia eginda, Gorlizen du egoitza Trokak gaur egun, eta Jabier da bertako zuzendaria. Gorlizko aterpetxean du egoitza Trokak, itsasora begira, hondartza ondoan. Eta bi motatako zerbitzuak eskaintzen dituzte: aterpetxea, alde batetik, eta abentura eta kirol jarduerak, bestetik. Abenturarako prest?

Edonork pasa ditzake egun batzuk Gorlizko aterpetxean, eta, bide batez, abentura jarduera batzuk egin nahi izanez gero, horretarako aukerarik ere bada. Ikastetxeentzat ere badute eskaintzarik. Trokan, bi motatako jarduerak eskaintzen dizkiete ikastetxeei: alde batetik, aterpetxea bera, eta bestetik, abentura eta kirol jarduerak. "Soilik lotara etortzeko aukera dago, lotara eta jarduerak egitera etor daitezke, edo nahi badute soilik jarduerak egitera", esan digu Jabier Fuertesek, Trokako zuzendariak.

Uretako eta lehorreko jarduerak eskaintzen dituzte. Uretako jarduerak surfa, bodyboarda, snorkella eta kanoak dira. Snorkella urpekaritzaren hasie-

rako fasea da, hegalak, betaurrekoak eta tutuarekin soilik egiten dena. Jarduera horiek egiteko, ezinbestekoa da igeri egiten jakitea. Lurreko jardueren artean, berriz, eskalada, rappela, tiroli-

na, arkuarekin jaurtiketa, orientazioa eta mendi ibilbideak eskaintzen dituzte. Batzuetan, herri kiroltako olinpiadak ere antolatzen dituzte aterpetxearen inguruan. Eskaintza adinaren arabera al-





datzen da, eta Gorlizen egiten dituzte jarduera guztiak, eskalada izan ezik; Urdulizera joaten dira horretara. Izan ere, adin batetik aurrera, aterpetxearen kanpoko aldean duten eskalada-murua txiki geratzen baita.

Ikastetxeek nahi dituzten jarduerak egiteko aukera dute, baina eguraldiak askotan baldintzatzen du egin beharrekoa. Hotzak, euriak, haizeak, olatuek... guztiak baldintzatzen dituzte jarduerak, eta, batzuetan, zenbait ekin-tza bertan behera utzi behar izaten dituzte, segurtasunak lehentasuna duelako. Horrelakoetan, mendi irteeraren bat egiten dute, Gorlizko pilotalekuan zerbait antolatzen dute edo tailerrak egiten dituzte aterpetxe barnean •

TROKA ABENTURA

Troka abentura
Itsasbide, 58
48630 GORLIZ Bizkaia
Telefonoa: 946 774 265
www.troka.com
troka@troka.com



Oharrak:

- Jarduera guztiak prezio bera dute.
- Jarduera guztiak euskaraz zein gaztelaniaz egin daitezke.
- Uretan egiten diren jardueretarako igeri egiten jakin behar da.
- Aterpetxean, gehienez, 35 ikasle hartzen dituzte, baina jarduerak egiteko gehiago ere izan daitezke.
- Sei urtetik aurrerako ikasleak hartzen dituzte, baina lau urtekoak ere joan izan dira tarteka.

Jarduerak

Uretako jarduerak

- Surfa
- Bodyboarda
- Snorkella
- Kanoak

Lehorreko jarduerak

- Eskalada
- Rappela
- Tirolina
- Arkuarekin jaurtiketa
- Orientazioa
- Mendi ibilbideak

Gazteak martxan programa

Programa hori Trokak kudeatzen du, baina Plentziako aterpetxean egiten dute, Bizkaiko Foru Aldundiarekin duten hitzarmenaren bidez. Gauza bera eskaintzen dute, baina soilik Bizkaiko ikastetxeentzat, eta 14-18 urteko gazteentzat.





Dora SALAZAR

ESKULTOREA

Donostian, bizikleta da nire garraiobidea, leku guztietara eramaten nau, askotan beharko ez nukeen bideetatik. Duela gutxi gizon batek, eta emakume batek beranduago errieta egin zidaten bidegorririk ez zegoenez, oinezkoen bidetik nindoalako:

- Ez duzue edukaziorik!
- Lotsagabeak zarete!

Lotsagabeak izan edo ez izan, edukazioa izan edo ez izan...

Horren harira, duela egun batzuk hiru lagun elkartu ginen bazkaltzeko eta ez dakit zergatik, baina gure "heziketa" gogoratu aritu ginen.

Hasieran, kostatzen zitzaidan garai haletako elkarrizketak eta egoerak berreskuratzea. Giro haren eta arkuz betetako pasillo ilun haren oroitzapen lausoagoa nuen eta arkatzen usain zehatzaren oroitzapena.

Baina erraz gogoratu nituen gauzak:

- 40 ikaslek osatutako ikasgelak (neskak soilik).

Hezkuntzaren kontraesanak

- Arbelera begira ilaretan jarrita.
- Emaizten arabera lehenetik hasita azkeneraino ordenatuta.
- Irakaslea oholtzaren gainean igota.
- Bilehenengo maila: azkarrena eta tuntunena.

Eta baita ikasle batek esandakoa ere: "tuntunen artean azkarrena naiz".


Ia dena ahaztua nuen.

Ziurrenik, desagertzeaz zeuden eskola nazionalen (frankisten) azken belaunaldia izan ginen. Beranduago, institutua eta ondoren, unibertsitatea paradisu libertario baten antzeko zerbait izan ziren.

Ustez, artista, eskultorea naiz. Nire lanetako askok kontraesanei buruz, aukeren hegalei buruz eta ezintasunen kortseei bu-

ruz hitz egiten dute, esanahia ere aldatzen duten arren.

Konfiantza gutxi dut hezkuntza sistemarengan. Aldatu diren eta aldatu behar diren gauza asko dago. Heziketa artistikoa hartzen badugu, niregandik gertuen dagoena da, teorikoki hobeto ikusia dago. Programaren diseinua egokia iruditzen zait baina praktikan ezinezkoa da denbora faltagatik, edo balio faltagatik, hori betetzea, ikasgai teknikoek humanistikoek gainetik egoten jarraitzen dutelako. Horrek talka egiten du gero eta zabalagoa den kultur-eskaintzarekin: erakusketak, kultur-bidaiak, errezitaldiak, dantza, antzerkia, zinema, kontzertuak, hitzaldiak... Beraz, argi dago bizitzea etengabeko ikasketa dela.



Arabian, Bizkaian eta Gipuzkoan asko hazi da ikasle atzeritarren kopurua azken hamar urteetan: 1998 urtean, 1.462 ikasle atzeritar zeuden; 2001an, 31.167, eta ia 68.376ra iritsi zen ikasle atzeritarren kopurua.

Iturria: Euskal Herriko Unibertsitatea

“Ikasle euskaldun eleanitzak sortzen. Urrats bat aurrera” jardunaldiak

Eguna: maiatzak 8

Ordua: 9:30

Lekua: **Bilbon, Deustuko
Unibertsitatearen
Auditorioan**

EGITARUA

9:30. Sarrera.

* **Xabier Mendiguren**, Kontseiluaren Idazkari nagusia.

10:00. “Ikasle euskaldun eleanitzak sortzeko Hizkuntzak irakatsi eta ikasteko markoa EAEn legearen garapenerako Kontseiluaren proposamena”ren aurkezpena.

* **Arantxa Urbe**, lan-taldearen koordinatzailearen eskutik.

11:00. Adituen ekarpena.

12:00. Atsedena

12:30. Hezkuntza sektoreko eragileen mahai ingurua.

* Parte hartzaileak: **EHIGE, EHIK, Kristau Eskola eta Sortzen Ikasbatuaz.**

* Moderatzailea: Hik Hasi.

**Parte hartzea
DOAKOA
izango da**



Izen ematea

kontseilua@kontseilua.org



nh
ik hasi

HIK HASI udako topaketak 2008

Donostian, uztailak 1, 2 eta 3

Matrikulatzeko azken eguna: maiatzaren 30a

Imanol Urbietaren ekarpen pedagogikoa, Nire hezitzaile-profila, Waldorf pedagogia, Hezkidetzeta gida, 0-6 urteko haur eskolak: Hazitegi proiektua, Txokoa, negoziaketa eta bitartekaritza, Gurasoekiko seme-alaben bortizkeria, Suizidioa, Balioen heziketarako ardatzak, Ahotsaren erabilpen egokia, Ahozkotasuna: eskolan lantzeko metodoa, Irakurzaletasuna, 0-5 urteko haurrentzat kantu eta jolasak, Ikas-estiloak eta ikas-estrategiak, Nola egokitu estilo kognitiboak eta irakaskuntza estiloak?, Euskal kultura, Euskal zibilizazioa, Psikomotrizitatea 0-3 zikloan, Psikomotrizitate praktika 0-6 urte, Biodantza, Coaching, Antzerkia, Adimen emozionala, Elkarrizketarako bitartekoak, Marrazten ikasi, Lehen mailako prebentzioa, Wikiak eta Webquestak, Blogak irakaskuntzan, Irakaskuntza 2.0: web 2.0, Scratch software librea, Power Point, Photoshop, Irudi eta soinu digitala, Bideoa, Karaokea editatzen ikasi... eta arratsaldeetako SAIO LIBREAK (Erromeri dantzak eta Euskal antzerkia)

UPV EHU
Hezkuntzaren Teoria
eta Historia Saila

Informazioa: www.hikhasi.com edo 943 371 408